


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

# **ERREPIKAPENAREN AZTERKETA KAZETARITZAKO AHOZKO BI TESTU GENEROTAN**

GRADU AMAIERAKO LANA

**Egilea: Enaitz Gutierrez Pozuelo**

**Tutorea: Leire Diaz de Gereñu Lasaga**

Euskal Ikasketetako Gradua (UPV/EHU)

Euskarazko ahozko testuen berbaldiaren azterketa

2018-2019 ikasturtea

## LABURPENA

Ahozkoaren analisi diskurtsiboak hurbilketa berezitua eskatzen du, izan ere, ahozkoan parte hartzen duen baliabide bakoitzak funtzio jakin eta zehatzak ditu. Horietako bat dugu errepikapena. Lan honetan, euskarazko kazetaritzako ahozko testuetan errepikapenaren erabilera aztertuko da. Bi saio aukeratu dira azterketarako corpora eraikitzeko: *Azpimarra* eta *Herri People*. Horietako bakoitza genero batekoa dugu, eta errepikapen mota ezberdinak zein funtzioekin agertzen diren aztertzea da lanaren helburua.

Errepikapena, Camachoren (2009) esanetan, antzinatek erabili izan den prozedura izan arren, sarritan hizkuntzaren hainbat esparrutan, gaizki ikusia egon da edo fenomeno baztergarriztat jo da. Hala ere, Larringan eta Idiazabalek (2008) dioten moduan errepikapena ahozko hizkeran gertaera arrunta da eta honek mezua antolatzeko modu propio bati erantzuten dio. Ahozkoaren fenomeno bakoitza, gure kasuan errepikapena, ahozkoaren neurrien eta ezaugarri zehatzen arabera aztertu eta epaitu behar da, izan ere, kasu bakoitzean honen erabilera eta funtzioak aldatu egingo dira.

Lanak bi atal izango ditu. Atal teorikoan, errepikapena definituko dugu lehenik, jarraian deskribatu izan diren errepikapen motak azalduko dira eta azkenik, errepikapenak ahozkoan betetzen dituen funtzioak jorratuko dira. Honez gain, errepikapena aztertzerakoan oinarrian ditugun testu generoek izan dezaketen garrantziaz jardungo dugu, izan ere, Alegriaren (2009) arabera, testuaren genero edo azpi-generoaren arabera errepikapena ezberdin gauzatzen da hiztunen solasetan.

Atal praktikokoan, kazetaritza testu genero ezberdin biren azterketa egiteko erabili den corpora eta metodologia aurkeztuko da. Proposatutako azterketa metodologiaren arabera emaitzak erakutsiko dira ondoren. Ateratako emaitzetatik abiatuta, alderatutako bi generoen arteko konparaketa egingo da bakoitzean agertzen diren ezaugarriak zeintzuk diren zehatzuz. Ondorio modura esango dugu, aztertutako saio bakoitzaren izaerak, hau da testu-generoak, errepikapen motak eta hauen funtzio diskurtsiboak baldintzatuko dituela.

## AURKIBIDEA

LABURPENA .....	1
1. SARRERA .....	3
2. ATAL TEORIKOA .....	4
2.1. Errepikapenaren azterketa diskurtso analisisian.....	4
2.1.1. Errepikapenaren definizioa .....	4
2.1.2. Errepikapena, parafraasi eta birformulazioa .....	5
2.1.3. Errepikapenaren egiturak .....	5
2.1.4. Errepikapenaren funtzioak.....	8
2.2. Errepikapenaren azterketa ahozko euskaraz.....	10
2.3. Solasean oinarritutako kazetaritzako ahozko testu generoak .....	12
2.3.1. Zer da solasa?.....	12
2.3.2. Solasa/Elkarrizketaren egituraketa: hitz-txandak .....	14
3. ATAL PRAKTIKOA.....	15
3.1. Azterketaren helburua .....	15
3.2. Corpora .....	15
3.3. Azterketa metodologia .....	17
3.3.1. Errepikapen motak.....	17
3.3.2. Errepikapenaren funtzioa .....	17
4. AZTERKETAREN EMAITZAK .....	21
4.1. <i>Herri people</i> saioaren emaitzak.....	21
4.1.1. Errepikapen motak.....	21
4.1.2. Errepikapenaren funtzioa.....	22
4.2. <i>Azpimarra</i> saioaren emaitzak .....	24
4.2.1. Errepikapen motak.....	24
4.2.2. Errepikapenaren funtzioa.....	25
4.3. SAIOEN ARTEKO KONPARAKETA .....	28
5. ONDORIOAK .....	29
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	31
7. ERANSKINAK .....	33
ERANSKINAK 1: TRANSKRIPZIO IRIZPIDEAK .....	33
ERANSKINAK 2: TRANSKRIPZIOAK .....	34

## 1. SARRERA

Hizkuntzak, elkarrekintza gauzatzeko hainbat baliabide ematen dizkio hiztunari eta diskurtsiboki elkarrekiteko momentuan, hiztunak eskaintzen zaizkion baliabide horien aukera jakinak egin behar ditu bai ahoz eta bai idatziz (Calsamiglia eta Tusón, 2001). Baliabide eta aukera hauen erabilera eremu eta funtzioak sarritan ez dira berdinak izaten ahozkoan eta idatzian, ondorioz, bakoitza dagokion moldearen barruan interpretatu eta aztertu behar da, era honetan ikusten baita benetan zein den baliabide bakoitzaren funtzio zehatza, erabilera, besteak beste.

Azterketa hau egiteko, ahozkoan erabiltzen diren errepikapenak hartu dira oinarrian. Errepikapena ahozkoan baztergarrizat jo den arren (Larringan eta Idiazabal, 2008), hurrengo orrialdetan ikusiko dugun moduan, honek funtzio anitzak dituela erakutsi da. Hala ere, ahozkoa ezin da errepikapenik gabe ulertu, eta ahozkoaren ezaugarri bat izateaz gain, estrategia pragmatikoa ere bada (Alegria, 2009).

Lanaren helburu nagusia ahozko errepikapenen inguruan azterketa enpiriko bat egitea izango da, testu genero ezberdinetan duen agerpena eta erabilera aztertuz, generoaren arabera ezberdintasunik ageri den zehazteko. Honetarako, kazetaritzako genero ezberdinetako ahozko bi saio aukeratu ditugu azterketarako corpusa osatzeko. Zenbait saiotako zatiak transkribatuz osatu dugu azterketarako lagina eta ondoren, bertan ageri diren errepikapenak identifikatu, sailkatu eta aztertu ditugu. Lana gauzatzeko erabili dugun hipotesia honakoa da: generoak errepikapenen agerpenean baita hauen mota eta funtzioetan ere eragina izango du, eta ondorioz, genero bakoitzean agertuko diren errepikapenak ezberdinak izango dira.

Lanaren egiturari dagokionez, bi atal nagusitan dago banatuta. Lehen atalean, atal teorikoan, errepikapenaren zedarrantze teorikoa egingo dugu. Honetan besteak beste, errepikapenaren definizio, funtzio, egitura eta honen inguruan egindako euskarazko lanen berri emango da. Honez gain, solasari ere erreparatuko zaio, aztergai diren kazetaritzako testu generoen oinarritzko egitura den heinean.

Bestetik, atal praktikoa, azterketaren helburua eta erabilitako corpusa zehaztu ondoren, aukeratu den testu genero bakoitzaren arabera errepikapenaren azterketa egingo da. Honetarako, bi alderdiri erreparatuko zaie; batetik errepikapen motei, eta bestetik, errepikapenaren funtzioei. Azterketa amaitzeko, lortutako emaitzetan

oinarrituta kazetaritzako bi saioen arteko konparaketa egingo da. Azkenik, ondorioetara joko dugu.

## **2. ATAL TEORIKOA**

Hurrengo orrialdeetan, corpusaren azterketan beharrezkoak izango diren oinarri teorikoak ezarri eta zehaztuko dira, ahozkoan errepikapenak dituen funtzioak berariaz landuz. Atal hau hiru azpi-atal nagusitan banatu da.

Lehenengo azpi-atalean, diskurtso analisiaren esparruan errepikapenaz egin diren azterketak jorratuko ditugu, errepikapenaren diskurtso edo interakzio mailako egitekoak eta garrantzia zehaztuz. Honetarako, lehenik errepikapena zertan datzan azalduko dugu honen definizioa emanez eta jarraian, errepikapena, parafrasia eta birformulazioa zehaztu eta hauen arteko aldeak aipatuko ditugu. Azkenik, errepikapena aztertzerakoan aipatzen diren egitura eta funtzioak ekarriko dira.

Bigarren azpi-atalean, ahozko euskara oinarri hartuta errepikapenen gainean egin diren lan eta azterketak ekarriko ditugu.

Amaitzeko, hirugarren azpi-atalean, kazetaritzako testu generoak hizpide izango ditugu eta ondoren solasa eta honen egitura oinarritzkoa zertan datzan azalduko dugu.

### **2.1. Errepikapenaren azterketa diskurtso analisisian**

#### **2.1.1. Errepikapenaren definizioa**

Errepikapenak, ahozkoan zein idatzizkoan sarritan ageri eta erabiltzen diren gertaera linguistikoak dira. Zehatzago esanda, errepikapena, Garcésen (2004) hitzetan, lehenagoko enuntziatu edo segmentu bateko elementuak edo elementu batzuk berriro ere adieraztean datzan fenomeno da. Oso erabiliak diren arren, oso aintzat hartzekoa da errepikapen guztiak ez direla maila berekoak ezta garrantzia berekoak ere.

Aipatutako autoreak errepikapenak sailkatzeko orduan hainbat irizpide zerrendatzen ditu:

- Lokutoreak berak egindakoak edo solaskide batek egindakoak.
- Hitzez-hitzekoak edo hitzez-hitzekoak ez direnak.
- Partzialak edo totalak.
- Berehalakoak edo ez berehalakoak.

Alderdi hauei erreparatuta, ikus daiteke hainbat faktorek parte hartzen dutela errepikapenak gauzatzeko unean, izan ere, ez da berdina lokutoreak berak egiten dituen errepikapenak edo solaskideak egiten dituenak; edota segmentu osoa errepikatzea edo honetako zati jakin bat bakarrik, besteak beste. Beraz, fenomeno nahiko zabala dela ikus dezakegu.

### **2.1.2. Errepikapena, parafrasia eta birformulazioa**

Errepikapena, parafrasia eta birformulazioa sarritan erabiltzen diren terminoak izan arren, hauek definitzeko eta sailkatzeko orduan ez da erabateko batasunik ageri. Ondorioz, hurrengo ataleko azterketan errepikapenei arreta jarriko diegula kontuan izanda komenigarria da elkarren arteko berezitasunak zeintzuk diren jakitea. Horretarako, Garcések (2004) hiru hauen arteko ezberdinketari dagokionez egiten duen proposamena azalduko dugu jarraian.

Bai errepikapenean eta bai parafrasian aurreko segmentura bueltatu eta hau berriro ere formulatzen den arren, bereizketa nabarmena dute autorearen arabera. Errepikapenean, aurrekoa berriro ere hitzez hitz edo aldaketa formal batekin adierazten den bitartean, parafrasian aurreko atalaren antzeko zentzua duen adierazpen formal desberdineko segmentua erabiltzen da. Garcések (ibid.) jasotzen duen moduan, ikuspuntu desberdinetatik heldu zaio errepikapen eta parafrasiaren arteko aldeari. Batzuen ustetan prozedura beraren kontrajarritako bi muturrak dira, beste batzuen ustetan, berriz, birformulazio kontzeptuaren azpikategoriak dira.

Birformulazioari erreparatuta, errepikapena eta birformulazioa prozesu orokor baten barruan kokatzen ditu autoreak. Prozesu honen oinarrian aurretik aipatutakoa berriro ere formulatzea dago, hala ere, errepikapenean berriro ere adierazitako zenbait elementuk bat egiten dute aurrekoarekin. Birformulazioaren kasuan ordea, berriro ere adierazten den elementua ez da zertan aurretik agertu dena izan behar, izan ere, bi enuntziatuen artean antzekotasun semantikoa da ageri dena autorearen hitzetan.

### **2.1.3. Errepikapenaren egiturak**

Aipatu bezala, errepikapenak ugariak izateaz gain, hauen sailkapena egiterako orduan ere ez dago sailkapen finko bakarrik; hau ikuspuntuaren eta arreta gunearen arabera aldatuko da. Errepikapen motak eta egiturak zehazteko dauden sailkapen ezberdinak ikusteko, jarraian hiru autorearen proposamenak aipatuko dira.

Garcésesek (2004) lehendabizi auto-errepikapen eta hetero-errepikapenen arteko bereizketa egiten du. Auto-errepikapena deitzen zaio lokutoreak berak esan duen zerbait errepikatzen duenean, ostera, lehenengo lokutoreak esandakoa beste solaskide batek errepikatzekotan, honi hetero-errepikapena deitzen zaio.

Honez gain, errepikapena ekin duenari begira ere beste bereizkuntza bat egiten du autoreak. Batetik, auto-abiatuak eta hetero-abiatuak<sup>1</sup> bereizten ditu. Lehenengo motari dagokionez, lokutoreak berak abiarazi eta gauzatzen du errepikapena. Mota hauetako errepikapenak solaskidearen hitz hartze faltagatik edo solaskideak, esandakoa txarto entzun duelakoan gertatu ohi dira. Gehienetan balio indargarria hartzen du errepikapenak, aurrerago sakonduko dugun moduan. Bigarren motari dagokionez, hetero-abiatuak, mota honetan errepikapena lokutoreak esandakoaren erreakzio modura sortzen da.

Bestetik, Garcésesek egitura formalaren arabera hitzez-hitzeoak<sup>2</sup> diren errepikapenak eta ez direnak bereizten ditu. Lehenengoari dagokionez, hitz berdinak doinu bera erabilia errepikatzen direnean esaten da; hauek, auto-errepikapenetan agertu ohi dira. Berehalako hetero-errepikapenetan, gehienetan aurreko lokutoreak esandakoarekin adostasuna adierazteko erabili ohi dela diosku autoreak.:

M: muy bien / todo se lo cose / pues ya [se lo digo yo esto / mujer]

A: [todo]

M: y las man[gas y todo]

A: [**sin ser**] **modista** / **sin ser modista** (Garcés, 2004:442)

Bigarrenen kasuan, hitzez-hitzeoak ez diren errepikapenetan, errepikatutako egituran elementuren bat gehitu edo kendu egiten da; hauek ohikoak izan ohi dira hetero-errepikapenetan:

J: tú ¿**a qué hora han de venir estos?**

A: ¿qué? Mm ¿eh?

H2: ¿**a qué hora vienen estos?** (Garcés, 2004:442)

---

<sup>1</sup> Garcésen (2004) lanean *autoiniciada, heteroiniciada*.

<sup>2</sup> Garcésen (2004) lanean *literal, no literal*.

Garcésesek hirugarren mota bat ere aipatzen du, hau da, errepikapen totalak edo partzialak. Errepikapen totaletan, errepikatutako zatia bere osotasunean errepikatzen da; hauen kasuan, aurretik aipatu bezala, auto-errepikapenak izatekotan indargarri modura erabiltzen dira; hetero-errepikapena denean ordea solaskidearekin adostasuna adierazteko erabili ohi da:

V: Corcuera era un ministro cojonudo / [!coño<sub>i</sub>]

J: [antes] [era electricista (RISAS)]

A: [**a mí Corcuera me cae muy bien**] // a mí Corcuera me cae muy bien

V: sí / a mí me cae muy bien / (( )) !coño<sub>i</sub> es- claro tú / ¿no tee?

A: **a mí [Corcuera me cae muy bien]** (Garcés, 2004:444)

Errepikapen partzialean ostera, zatia ez da bere osotasunean errepikatzen eta honen helburu nagusia autorearen esanetan, aukeratutako zatiari garrantzia edo enfasia ematea da:

R: [...] y empecé a trabajar de interina en Sevilla / primero hice una sustitución en Morón de la Frontera / que estuve desde yo empecé **el día de los santos** o de los ‘ o de los ‘ o de los / o de los difuntos no sé

A: **de todos los santos** (Garcés, 2004:445)

Azkenik, errepikapena gertatzen den berehalakotasunari dagokionez, autoreak berehalako errepikapenak, aurreko segmentuaren errepikapena jarraian gertatzea edo distantzia tartean dela gertatzen direnak bereizten ditu. Azken hauen kasuan, errepikatutako elementuen artean beste zenbait elementu txertatzen dira.

Larringan eta Idiazabalek (2008), ikuspegi sintaktikoa hartuta, egitura parataktiko eta koordinatuz sortutako errepikapenei jartzen diete arreta eta euskarazko hainbat testu generotan errepikapenen figura sintaktikoak aztertzen dituzte. Egiten duten sailkapenean bat egiten dute oro har Garcésen (ibid.) ikuspegiarekin. Besteak beste, berehalako errepikapenak eta distantziakoak, totalak eta partzialak daudela azaltzen dute baina, horrez gain, errepikatzen diren elementuak ez direla ausazkoak azpimarratzen dute, haien artean beti erlazio logiko bat ezartzen dela zehaztuz. Erlazio logiko hauei erreparatuta, errepikapen sintaktikoen figuretan nagusiki bi motatako erlazioak daudela aipatzen dute autoreek, besteak beste: erlazio parafrasikoa, bi atalen artean esanahia



berdina edo antzekoa denean, eta kontrakarreko erlazioa, bi aldeen artean kontraste edo aldea ageri denean. Hurrenez hurren:

</letra hau kantatzen zuela pixkat aldatuta ez? I ez oso aldatuta baina  
pixkat aldatuta / ez?/> (Larringan eta Idiazabal, 2008:32)

</eta mundu guztian da / istoria hau / istoria hau ez da bakarrik  
euskalduna / I istoria hau da Grezian eta da unibertsala//> (Larringan eta  
Idiazabal, 2008:32)

Alegriak (2009) euskarazko errepikapen lexikoei buruz egindako lanean, beste zenbait autoreren lanak aztertuz errepikapenen sailkapenen ugaritasuna eta berauen konplexutasuna erakusten du. Hauen artean, besteak beste honako sailkapenak ekartzen ditu, errepikapen paradigmatico eta sintagmaticoak; izaera automatikodun eta formula erritualak sortarazteko bitartekoa. Euskarazko solasean errepikapenak duen izaera eta lekua aztertzeko, ordea, errepikapenen bereizketa hau jarraitzen du, bi multzo nagusitan bereiziz errepikapena: batetik, borondatez kanpo egindakoak, eta bestetik, mintzakidearen borondatea agerian uzten dutenak.

Borondatez kanpoko errepikapenei dagokienez, lau aipatzen dira Alegriaren lanean. Batetik, esan beharrekoa esan bitartean hartzen den denbora betetzea; hitz-txandari eusteko nolabaiteko baliabidea izango genuke hau. Bestetik, poza, haserrea, beldurra, urduritasuna bezalako emozioen ondorioz eragindako errepikapenak. Hirugarren multzo batean, arrazoinamendu baten faseak adierazten dituzten errepikapenak sartuko lirатеke. Laugarren motakoak, lexikalizatutako errepikapenaren erabilerak lirатеke, hau da, erabiltzearen erabiltzeaz hitz bakar modura erabiltzen direnak.

#### **2.1.4. Errepikapenaren funtzioak**

Errepikapen motak eta errepikapenen egiturak azaldu ostean, errepikapenen funtzioak jorratuko ditugu. Errepikapenen sailkapenarekin gertatu bezala, funtzioak zehazterakoan ere nolabaiteko desberdintasunak ikus daitezke ikuspuntuaren arabera edo autorearen arabera. Edonola ere, gure lanean egindako funtzioen azterketan oso aintzat hartuko dugu hauen askotariko izaera: “El problema central en el estudio de la repetición es establecer una tipología precisa de sus funciones, donde esté representada la variedad y multitud de sus empleos” (Garcés, 2004: 445).

Jarraian, hainbat autorek errepikapenari esleitzen dizkioten funtzioak ekarriko ditugu. Hasteko, Garcések (2004) bereizten dituen hiru funtzio nagusiak aipa ditzagun: funtzio testualak, elkarrizketa funtzioak eta funtzio interaktiboak.

Funtzio testualei dagokienez, errepikapenak informazioaren antolaketari laguntzeaz gain, sekuentzien arteko kohesioa ahalbidetzen duen baliabide garrantzitsua dela aipatzen du autoreak. Kohesioa lortzeko, lehendik erabilitako egiturak errepikatu egiten dira modu egonkorrean, era honetan garapenaren nolabaiteko egonkortasuna eta kohesioa bermatzeko. Honez gain, adierazitako informazioari dagokionez, sarritan errepikapenak bide ematen du aurretik aipatutako ideia bati zehaztapenen bat edo beste elementuren bat gehitzeko. Bestetik, gai bati hasiera emateko baliabide ohikoa dela ere zehazten du. Hau, solasaren unitate dialogiko minimoak (Tusón, 2002) diren hurren bikoteen osaeraren barruan, galderari errepikapen baten bidez erantzunda, errepikapen hau, hizketa objektu bihurtzen da. Funtzio testualekin amaitzeko, errepikapenak gaien aurrera egiteko balio izateaz gainera, kontestu jakin batzuetan, gaiaren amaiera markatzeko ere balio du.

Elkarrizketa funtzioei dagokienez, hizketaldiaren balio dialogikoarekin lotura egiten du Garcések (ibid.), hau da, lokutoreen hitz-txandekin<sup>3</sup>. Honetan, hainbat mota bereizten dira; batetik, galdera baten formulazioaren ostean, erantzuna ematerako orduan, erantzuna galdetzaileak erabilitako hitzak erabiliz ematea. Bestetik, lokutore berak hitz-txanda berreskuratze aldera egindako errepikapenak ere bereizten dira. Azken hauek, besteak beste, beste hiztunak egindako galdera baten edo etete baten ostean erabiltzen dira normalean, hizketaldiaren hariarekin jarraitzeko. Azkenik, galdera-erantzunen bidezko beste bi mota ere bereiz daitezke. Lehena, erantzuna ematerako momentuan galdera berriro ere errepikatzea deixi berezi batekin:

A: ¿en qué empleáis el dinero? venga.

B: ¿en qué empleamos el dinero? En pagar el alquiler de la casa  
(Garcés, 2004:450)

Bigarrena, ekoizpeneko zati bat osorik ulertu ez izanaren ondorioz formulatutako galderetan erabiltzen diren errepikapen partzialak:

A: no / es buena gente / y **te suelta unos pildoretazos** que

---

<sup>3</sup> Hitz-txanda lokutoreak solasaren momentu batean egiten duen ekarpena da (Charaudeau & Maingueneau, 2005).

J: ¿te suelta unos [qué?]

S: [¿pil-] pildoretazos?

A: **pildoretazos** (Garcés, 2004:450)

Funtzio mota ezberdinen aurkezpenarekin amaitzeko, funtzio interaktiboaren baitan biltzen diren errepikapenei erreparatuko diegu, zehazki, hauek hizlarien artean ezartzen diren erlazioak zehazten dituzten funtzio motak dira. Funtzio motei dagokienez, hauen artean, mezuaren adostasuna aintzat hartuz bi multzo handi bereizten ditu Garcések: batetik, adostasuna adierazteko errepikapena eta bestetik, desadostasuna adieraztekoa.

Lehenengoan honako hauek sartuko lirateke: baiezko erantzuna adierazteko galderan formulatutako elementuen errepikapena, mezua jaso izana adierazteko erabiltzen den errepikapena, erabateko bat etortzerik ez dagoenean erreferentziaren bat gehitutako errepikapen partziala. Bestetik, desadostasuna adierazteko, hainbat erataria egin daiteke: errepikapen totala deixi ezberdina erabilia, errepikapen bidezko galdera erretoriko baten bidez, etab.

Larringan eta Idiazabalek (2008) sei funtzio nagusi ezartzen dizkiote errepikapenari: formulazioa gauzatu eta moldatzea, berbaldiaren garapena geldotzea, metahizkuntza funtzioa mezuaren deskodetze eta ulerpena erraztuz, funtzio fatikoa, hanpatze funtzioa eta nabarmentze funtzioa.

Alegriak (2009) bi multzo nagusitan bereizten dituen errepikapenei, errepikapen paradigmaticoak eta errepikapen sintaktikoak, funtzio nagusi bana ezartzen die. Errepikapen paradigmaticoen funtzio nagusia edukiaren beraren ulermena erraztea eta ziurtatzea da. Bestetik, errepikapen sintaktikoek alderdi komunikatibo eta pragmatikoari gehiago begiratzen diote eta alde honetatik komunikazioa egoki gauzatzeko aurretik aipatu ditugun balio fatikoa, deskodetze funtzioa etab. izango ditu.

## **2.2. Errepikapenaren azterketa ahozko euskaraz**

Ahozko euskararen deskribapenari dagokionez, errepikapena oinarri hartzen duten ikuspuntu ezberdineko zenbait lan ditugu gura baino urriagoak izan arren. Jada aipatutako lanez gain, beste zenbait lanetan ere aztertzen da ahozko hainbat testu-generotan errepikapenak duen lekua eta funtzio askotarikoak, (Larrazabal eta Larringan, 2007; Garcia-Azkoaga eta Diaz de Gereñu, 2009).

Larringan eta Idiazabalen (2008) lanean, aipatu moduan, errepikapen eta erredundantziak oinarri hartzen dira eta ahozkoa ezaugarritu eta errepikapen mota ugari daudela aipatzen da. Hala ere, fokua egitura parataktiko eta koordinatuetan, hau da alborakuntza eta juntadura bidezkoetan, jartzen dute. Errepikapen hauen erlazio motak (parafasikoa eta kontrakarrekua) aipatzeaz gain, funtzio pragmatikoak zeintzuk diren ere zehazten dute, besteak beste, funtzio fatikoa, hanpatze funtzioa, nabarmentze funtzioa, etab. Dena den, aipatu autoreek ez dituzte generoen arabera aztertzen errepikapen hauek. Errepikapenaren fenomenoaren bera deskribatzen dute, hainbat testu errealean aurkitutako adibideak jasota.

Alegriaren (2009) lanean, errepikapen lexikoen ahozkoaren koherentzia sintaktikoan duten funtzio eta egitekoa aztertzen da eta solas arruntetako testuen gainean egiten da azterketa enpirikoa, errepikapenak egitura sintaktiko ezberdinetan sailkatuz. Ateratako emaitzei dagokienez, mezuaren ulergarritasuna helburu duten errepikapen paradigmaticoak eta helburu pragmatikoa duten errepikapen sintagmaticoak bereizten ditu. Honez gain, errepikapenak enuntziatuen berehalako izaera eta iraupen iheskorari erantzuten dieten gertakariak direla zehazten du autoreak.

Larrazabal eta Larringanen (2007) lanean irratian elkarriketak hartzen dira generoaren deskribapena egiteko. Lanean hitz-txandei, hauen banaketa eta elkartrukeri garrantzia ematen dien arren, errepikapenak interlokuzio gertakariaren balioztatzaile diren elementu linguistiko moduan hartzen dira.

Garcia-Azkoaga eta Diaz de Gereñuren (2009) lanean ahozko narraziozko testuak, kontalari adituenak, lantzen dira kohesio mekanismoak aztertzeko. Errepikapenak ahozko hizkuntzaren ezaugarri berezkoak izanik, eta hauek behar komunikatiboei erantzuten dietela argudiatuz, kohesioa aztertzeko erabiltzen den metodologian integratuta dagoen baliabide gisa agertzen da. Autoreek emaitzetan erakusten dutenez, errepikapenak, ahozko mintza-jardunean kohesioa testuratzeko funtzioa betetzen dute eta honez gain, zenbait kasu eta funtzio zehatzetan entzuleen arreta fokalizatzeaz gain narrazioari erritmoa emateko ere erabiltzen direla zehazten dute. Errepikapenak baliabide konplexuak direla azpimarratzen dute eta hauek dimentsio linguistikoan aztertzeaz gain, dimentsio interakzional eta soziodiskurtsiboan aztertu beharra ere azpimarratzen dute.

Ikusten denez, euskarazko ahozko testuetan errepikapenari ikuspegi ezberdinetatik heldu zaio eta horren arabera, funtzio askotarikoak deskribatu zaizkio.

### **2.3.Solasean oinarritutako kazetaritzako ahozko testu generoak**

Atal honetan, solasa oinarritzko elkarrekintza mota bezala darabilten kazetaritzako ahozko testu generoen egituraketari eta ezaugarritzeari erreparatuko diogu. Izan ere, solasaren barruan errepikapenaren agerpenak testuan betetzen duen leku eta funtzioarekin batera aztertuko dira lanean. Honez gain, kontuan izan behar da solas horien egituraketan ezberdintasunak ager daitezkeela.

Kazetaritzako testu generoei buruz aritzean argi izan behar da azken urte hauetan, kazetaritzan aldaketa eta berritzapen ugari egon direla. Rodriguezek (2004) dioenez, aldaketa hau genero klasikoenetan ere gertatu da, elkarrizketa adibide. Ondorioz, autoreak azpimarratzen du kazetaritza generoen gaur egungo sailkapena oso anitza dela, bai generoei eta azpigeneroei dagokienez.

Lan honetan aztertu nahi diren ahozko testuak kazetaritza elkarrizketa generoaren barruan daudenez, komeni da lehendabizi solas bidez gauzatzen den elkarrizketa generoa zer den zehaztea. Santamaría (2011) emandako definizioa ekarriko dut: “La entrevista es un diálogo con características propias, donde dos o más personas establecen un proceso de comunicación en el que el objetivo principal es la obtención de información [...]” (Santamaría, 2011:25).

Elkarrizketaren kazetaritza generoak bere aldetik ere aldaketa ugari jasaten ari da azken urteetan Fuentesen (2014) esanetan, izan ere, ikuslearen arreta deitzeko estilo berezi eta berriak erabiltzen hasi dira. Hau lortzeko, autoreak dioten moduan, zenbait programetan lagunartekotasuna erabiltzen da elkarrizketatua ikuslegoari hurbiltzeko. Honek, elkarrizketari maila askotan eragin diezaioke.

#### **2.3.1. Zer da solasa?**

Aipatu bezala, kazetaritzako generoen artean, solasean oinarritzen direnak asko dira. Azpi-generoak dei genitzake, izan ere, hauek solas bidezko testu dialogalak dira, azken ekoizpen ahozko edo idatzira bideratuak daudenak. Alegriak (2009) dioenez, sarritan lotzen da ahozkoa jarduera arrunt eta lagunarteko informalekin, eta idatzia berriz, estandarra eta landuarekin, baina kazetaritzako ahozko testuak eremu formaleko ahozko testuak dira, jakina. Ahozko nahiz idatzizko modalitateetan aurkitzen dira espontaneoki sortuak edo landuagoak diren testuak.

Calsamigliak eta Tusónek (2001) aipatzen dute ahozkoak eta idatziak zenbait funtzio sozial berdin dituztela; hala ere, ahozkoaren funtzio sozial nagusia, giza harremanak balioztatzea da. Beraz, pentsa daiteke, kazetaritzaren barnean koka ditzakegun ahozko zein idatzizko generoek ere funtzio sozial hau gauzatzea izango dutela helburuetako bat. Ondorioz, aipatutako funtzio soziala helburu izateak, zenbait baliabide bereizgarriren agerpena ekar dezakeela pentsa daiteke.

Ahozkoa bera, hainbat praktika diskurtsiboren adierazpidea da, hauen bidez aurretik esan bezala, gizakion alderdi soziala garatzen da. Praktika hauen barnean muturreko bi ahozko mota bereiz daitezke: ahozko espontaneo eta idatzi mintzatua (Dolz & Schneuwlyk 1998 apud Alegria 2009). Baina mutur horien tartean, Koch & Oesterreicher-ek (2007) aukera amaigabeak daudela erakusten dute. Hauek, baldintza komunikatiboen eta aukeratutako estrategien arabera ahozko espontaneotik gertuago edo urrunago egongo dira. Hala ere, praktika guzti hauek ezaugarri komun bat dute, hau da Alegriaren (2009) esanetan mintza jardunaren dimentsio dialogikoa eta honekin batera datozen inplikazioa eta parte hartzea.

Praktika multzo zabal honen artean ezagunena edo oinarritzkoenetako bat solasa dugu; Tusónek (2002) era honetan definitzen du: “una actividad verbal oral de carácter interactivo organizada en turnos de palabra” (Tusón, 2002:134).

Solasaren egituratze arauak, beste hainbat ezaugarriekin batera, elkarrizketaren oinarrian izango ditugu, eta solasaren arau hauek kazetaritzako testu generoei egokitu eta ezaugarritzeari eta hauen azterketari erreparatuta baliagarriak izango dira.

Solas bidezko berbazko elkarrekintzen ezaugarri nagusiei dagokienez, Calsamigliak eta Tusónek (2001) hiru nagusi hauek aipatzen dituzte. Lehenengo, aldibereko partehartzea solaskideen artean. Bigarrenik, aldibereko presentzia, hau da, espazio eta denbora partekatzen da. Eta azkenik, pertsonen arteko harremana, izan ere uneoro negoziatzen da hau solasaldian. Bestetik, ezaugarri hauez gain, Tusónek (2002) bat-bateko elkarrekintzen ezaugarriak zerrendatzen ditu. Hauetako zenbait baliagarriak izan daitezke elkarrizketak ulertzerako unean, besteak beste, elkarrizketaren izaera dialogala: normalean ez du solaskide batek baino gehiago hitz egiten aldi berean; hitz-txanden luzera ez da finkoa, solaskideen kopurua alda daiteke; hitz-txandak banatzeko teknikak daude; etab.

### 2.3.2. Solasa/Elkarrizketaren egituraketa: hitz-txandak

Elkarrizketaren egituraketa erreparatuko dugu, honek erregela malguak baina zehatzak jarraitzen dituelako. Solasaren azterketek ahalbidetu dute elkarrizketetan hitz-txanden agerpena eta hauen garrantzia seinalatzea. Hitz-txanda lokutoreak solasaren momentu batean egiten duen ekarpena da; hitz-txandak, solasean zehar kateatzen dira alternantzia printzipioa jarraituz (Charaudeau & Maingueneau, 2005). Calsamigliak eta Tusónek (2001) aipatzen dutenez hitz-txanden sistema testuinguruaren arabera ez den arren, honek baldintzatua da.

Hitz-txanda hauek banatzeko erari dagokionez, Tusónek (2002) bi modu nagusi bereizten ditu; auto-aukeraketa eta hetero-aukeraketa<sup>4</sup>. Hetero-aukeraketan, hitz-txanda daukan pertsonak erabakitzen du hurrengo solaskidea nor izango den. Auto-aukeraketan berriz, bertan dagoen pertsona batek hitza hartzen du hizlariak bera aukeratu gabe.

Bestetik, hitz-txanden osakerari dagokionez, honakoa aipatzen dute Calsamiglia eta Tusónek (2001):

“(…) la forma de intercambio mínimo más típica en que se organizan los turnos de palabra es el par adyacente<sup>5</sup> formado por dos intervenciones; se trata de dos turnos normalmente consecutivos en los que el primero supone la aparición del segundo.” (Calsamiglia eta Tusón, 2001:35-36)

Hurren bikoteetan, Tusónek (2002) honako zehaztapen hauek ematen ditu: Zenbaitetan, lehenengo eta bigarren txandaren artean beste hurren bikote batzuk ager daitezke. Beste batzuetan, txanda berean hurren bikote bat baino gehiago ireki daitezke. Hala ere, guztietan ohiko eta oinarritzkoena “galdera, erantzun, ebaluazio” egitura dela aipatzen du autoreak.

Amaitzeko, berbazko elkarrekintzetan adierazi nahi dena interpretatzerako unean modu bakarrik ez dago, elkarrekintza berak hartzailearen arabera interpretazio ezberdinak izan ditzake. Tusónek berak sei interpretazio mota ezberdin aipatzen ditu: baieztapen/ebaluazioa, ezustea adierazteko adierazpenak, jarraitzaileak, laburpenak edo birformulazioak, txanda baten eraiketa kooperatiboa eta konponketak.

---

<sup>4</sup> Tusónen (2002) lanean *autoselección* eta *heteroselección*.

<sup>5</sup> *Hurren-bikotea* gazteleraz.

### 3. ATAL PRAKTIKOA

Behin atal teorikoarekin azterketarako oinarri teorikoa jorratuta, jarraian ageri den atal honetan, atal praktikoari ekingo zaio.

Era honetan egituratu da atal praktikoa. Lehenik, azterketaren helburu nagusia zertan datzan zehazteaz gainera, hipotesia eta azterketa galderak ekarriko dira. Ondoren, corpusa osatzen duten testuak aurkeztuko dira, aukeratutako kazetaritzako bi saioei dagokien testu genero zehatzei eta bakoitzaren ezaugarriei arreta emanaz. Jarraian, azterketa metodologia zein izan den zehaztuko da, zein errepikapen mota eta zein funtzioei erreparatuko zaien azalduz. Ondoren, azterketan ateratako emaitzak aurkeztuko dira bi multzotan: batetik, lehen testu generoari dagozkionak eta bestetik, bigarren testu generoari dagozkionak. Bakoitzaren emaitzak ekarri ostean, aukeratutako genero bien arteko konparaketa egingo da.

#### 3.1. Azterketaren helburua

Azterketa honen helburu nagusia bi kazetaritza generotan errepikapen motak eta errepikapen hauek dituzten funtzioak aztertzea da. Atal teorikoan jorratutakotik, uste dugu, aukeratutako kazetaritzako esparruko ikus-entzunezko saioetan errepikapen mota eta funtzio askotarikoak agertuko direla, eta errepikapenaren erabileran ezberdintasunak agertuko direla, genero ezberdinetakoak izanik. Hipotesi hau baieztatu nahian, jarraian aipatutako hiru galdera hauek hartu dira oinarrian azterketa aurrera eramateko.

- Zein errepikapen mota agertzen dira?
- Zein funtzioekin agertzen dira?
- Generoaren arabera errepikapen moten konfigurazioan alderik agertzen da?

#### 3.2. Corpusa

Aurreko atalean esan bezala, azterketa ikus-entzunezko bi kazetaritza generotan oinarritu da. Aukeratutako bi kazetaritza generoak, ETB1 telebista kateko bi programa entzutetsu dira: *Herri People* eta *Azpimarra*. Bi programa hauek oso ezberdinak diren arren, bietan elkarrizketak saioaren zatirik handiena eta garrantzitsuena hartzen du; izan ere, neurri handiagoan edo txikiagoan, biak dira elkarrizketa programak.

*Herri People*, Ibon Gaztañazpi kazetariak aurkeztzen duen ETB1eko erreportaje saioa da. Programa bakoitzean Ibon Gaztañazpi Euskal Herriko txoko ezberdinetara joaten da, besteak beste, jendearen istorioen, bizipenen, herriko tradizioen, ogibideen



berri izateko. Honetarako, saioan zehar hainbat pertsona elkarrizketatzen ditu eta tarteka Ibon Gaztañazpik zehaztapen edo azalpenak ematen ditu bakarka off ahotsean, besteak beste, aurkezpenetan, elkarrizketak hasi aurretik, saio amaieran.

*Azpimarra* saioari dagokionez, Maddalen Iriarte kazetariak aurkeztutako ETB1eko programa da. Honetan, eguneko albisteen berri eman eta hauen inguruan dihardute hainbat gonbidaturekin batera, adituak, politikariak, kazetariak, besteak beste. Programa honetan, egunerokotasuneko gaien analisi eta eztabaida egiteaz gain, hainbat elkarrizketa ere egiten dira. Zehazki, “Azpimarra +” deituriko tartean, mahai inguruaren aurretik elkarrizketa sakon bat egiten diote intereseko gonbidatu bati.

Aztergaia errepikapenak direla kontuan hartuta, hainbat pausu eman behar izan dira corpusa zehazterako unean. Lehendabizi, sei saio aukeratu eta corpusa osatzeko, saioen atalen aukeraketa egin da. Behin sei saio-atalak aukeratuta, transkripzio irizpideak finkatu<sup>6</sup> eta testuak transkribatu dira, lagina osatuz, errepikapenak identifikatzeko eta azterketa ahalbidetzeko. Transkribatutako saio bakoitzeko testuari izendapena eman zaio; adibidez, *Azpimarra* saiotik aukeratutako Paul Bilbaori egindako elkarrizketari, *AZP1* izendapena eman zaio.

Transkripzioei dagokienez, sei testuak kontuan hartuta, guztira 56 minutu eta 25 segundo transkribatu dira. Saio bakoitzeko transkribatutako minutuei erreparatuta, batez beste kopuru ia berdina dela ikus daiteke transkripzioen informazioa dakarren ondoko taulan.

#### 1. TAULA: CORPUSAREN OINARRIZKO DATUAK

	Herri People			Azpimarra		
<b>Laburdura</b>	HP1	HP2	HP3	AZP1	AZP2	AZP3
<b>Orrialdeak</b>	34-41	41-48	48-55	55-59	60-64	64-68
<b>Minutuak</b>	9' 12"	10' 7"	9' 39"	9' 33"	10' 13"	7' 41"
<b>Guztira</b>	28' 58"			27' 27"		

Egindako transkripzioak lan honetako 2. eranskinean ageri dira.

<sup>6</sup> Val.es.co taldearen transkripzio irizpideak oinarri hartu dira transkripzioa egiteko. Irizpide hauek, laneko 1. eranskinean ageri dira zehaztuta.

### 3.3. Azterketa metodologia

Behin corpora aurkeztuta, berau aztertzeko jarraitutako metodologia zein izan den zehaztuko dugu. Azterketa bi atal nagusitan zatitu da; lehenik errepikapen motei erreparatu diegu eta bigarrenik errepikapenen funtzioei.

#### 3.3.1. Errepikapen motak

Atal teorikoan ikusi dugun moduan, hainbat motatako errepikapenak ageri dira, besteak beste, Garcések (2004) lau errepikapen mota aipatzen ditu: auto-errepikapenak eta hetero-errepikapenak, hitzez-hitzeakoak eta hitzez-hitzeakoak ez direnak, errepikapen totalak eta partzialak, eta amaitzeko, berehalakoak eta distantzian egindakoak.

Gogora dezagun, auto-errepikapenak lokutoreak berak egindako errepikapenak dira eta hetero-errepikapenak aldiz, lehengo lokutoreak esandakoa beste solaskide batek errepikatzen duenean gertatzen dira. Azterketa honetan, bi errepikapen mota hauek kuantifikatuko dira, zein, non eta zenbat agertzen diren ikusteko.

#### 3.3.2. Errepikapenaren funtzioa

Azterketaren bigarren atalean, errepikapenaren funtzioak aztertuko ditugu. Larrazabal eta Larringanek (2007) proposatutako sailkapena izan dugu abiapuntu errepikapenaren funtzioak bi ataletan banatzeko: **solaskidetzarekin** lotutako funtzioak eta **garapen tematikoarekin** lotutako funtzioak. Corpusaren lehen azterketa batean, ordea, sailkapen hori osatzeko beharra izan dugu zailtasunak aurkitu ditugulako zenbait funtzio bi kategoria horietan sartzeko. Hori dela eta, **bestelakoak** kategoria sortu dugu.

Funtzio motei dagokienez, atal teorikoan azaldu dugun Garcésen (2004) proposamena hartu dugu oinarri bezala, baina gure corpusaren lehen behaketa bat eginda, funtzioen hiru sail nagusi bakoitzerako funtzio zerrenda bat proposatu dugu. Zehazki, **garapen tematikoa** kategoriaren barruan funtzio hauek proposatu ditugu: *erabilera orokortu edo lexikalizatuak, diskurtsoa garatzea, hitz-txanda hartu eta honetatik abiatuta hitz hartzea garatzea, zerrendatzea, zerrendatze bidezko diskurtso eraikitzea, esandakoa modalizatzea edo zehaztea, jorratuko den gaian sartzeta, eta esandakoa laburbiltzea.*

**Solaskidetz**a kategorian funtzio hauek aztertuko dira: *solaskidetz*a jarraitzeko *galdera erretorikoa, hitz-txanda hartu eta honetatik abiatuta hitz hartzea garatzea, aurkeztea eta agurtzea, eta hizketako hutsuneak betetzea.*

**Bestelakoak** kategorian aurreko bietan sartu ezin izan ditugun funtzio hauek aurkituko dira: *indargarriak, pentsatzeko/diskurtsoa eraikitzeo denbora egitea, eta akatsak zuzentzea.*

Taula honetan laburtzen da funtzioen azterketarako eraiki dugun azterketa metodologia:

## 2. TAULA: PROPOSATUTAKO FUNTZIOEN SAILKAPENA

Garapen tematikoa	Solaskidetza	Bestelakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera orokortu edo lexikalizatuak</li> <li>• Diskurtsoa garatzea</li> <li>• Hitz-txanda hartu eta honetatik abiatuta hitz hartzea garatzea</li> <li>• Zerrendatzea</li> <li>• Zerrendatze bidezko diskurtso eraikitzea</li> <li>• Esandakoa modalizatzea edo zehaztea</li> <li>• Jorratuko den gaian sartzea</li> <li>• Esandakoa laburbiltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Solaskidetza jarraitzeko galdera erretorikoa</li> <li>• Hitz-txanda hartu eta honetatik abiatuta hitz hartzea garatzea</li> <li>• Aurkeztea eta agurtzea</li> <li>• Hizketako hutsuneak betetzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indargarriak</li> <li>• Pentsatzeko/diskurtsoa eraikitzeo denbora egitea</li> <li>• Akatsak zuzentzea</li> </ul>

Jarraian, garapen tematikoarekin lotutako corpuseko errepikapenen adibide batzuk ekarriko ditugu, proposatutako funtzioak hobeto ulertu eta ikusarazteko<sup>7</sup>:

- Erabilera orokortu edo lexikalizatuak.
  - (1) A: **tantaz tanta** bete edo iturri baten azpian jarri (AZP1:34)
  - (2) MI: **pixkanaka pixkanaka** hortik ateratzen ari garela (AZP2: 63)
- Diskurtsoa garatzea.
  - (3) A: jendartearen lehentasunak aldatu egin ziren / baina guk jarraitu genun gure **agendarekin** eta beraz guk geneukan **agenda bat** / baina **herriak** beste **agenda bat** zeukan eta **herri** hau aldatu nahi dugunak

<sup>7</sup> Adibideetan zein testutakoa den eta zein lerrotan ageri den adieraziko da. Jarritako lehen adibidea, *Azpimarra* saioko lehen testuari dagokio, eta 34. lerroan aurkitzen da. Honez gain, errepikatzen diren elementuak letra lodiz markatu dira.

**agenda herriarekin** egin behar dugu / **herriarekin** batera  
(AZP2:72-74)

- Hitz-txanda hartu eta honetatik abiatuta hitz hartzea garatzea. Aurrekoarekin bereizteko, bi hitz-txandatan gertatzen da, lehenengoan esaten dena errepikatzen da bigarren hitz-txandan eta ondoren bigarren honen garapena dago.

(4) MI: baino zuk nola ikuste dezu **botila** momentu honetan bi mila ta hamaseiko uztaillaren lehenengo honetan?

A: bai nik beti diñot / kontua dala **botila** hori **bete bete** egin behar dela / askotan denbora gehiegi ematen dugu ea **botila** erdi hutsirik edo erdi **beterik** dagoen eztabaidatzen ta nik uste kontua dala **botila bete** egin behar dela / ta klaro **botila betetzeko** hainbat modutara egin daiteke / tantaz tanta **bete** edo iturri baten azpian jarri eta benetan **botila** hori ahalik eta arinen **bete** (AZP1:29-35)

- Zerrendatzea.

(5) MI: **bai** Idoia Mendia / **bai** Iñigo Urkullu / **bai** eh: Arnaldo Otegi  
(AZP1:68-69)

(6) A: ze toki denda bat **bakoitza** / banku **bakoitza** / erakunde publiko **bakoitza** / ertzain **bakoitza** / komunikabide **bakoitza** / garraio publiko **bakoitza** (AZP3:111-113)

- Zerrendatze bidezko diskurtso eraikitzea.

(7) A: ordun jendeari **esan behar zaiona da** egia ta **esan behar zaiona da** / **hamen** estafa handi bat **egon da hemen krisi** oso teledirigitua **egon da** / hemen **krisitik** batzuk aberatsago atera dira / **hemen krisitik** lan baldintzak askoz mugatuagoak dira / **hemen** prekarietatea askoz ere handiagoa da / **hemen** esaten da orain aterako garela mirari batekin / eta indikadore ekonomikoek munduan esaten dutena da agian / agian ez gaudela **krisitik** ateratzen baizik eta **krisi** berri bat etorriko dela (AZP2: 103-108)

- Esandakoa modalizatzea edo zehaztea.

(8) A: benetan **herritarrek** / **herritar: xumeek** ikusiko dugu euskarak baduela garrantzia (AZP1:75)

(9) MI: euskal: zale garenontzat **eraso** izan diren **alderdiak** edo **erasoak** jaurti dituzten **alderdiak** aipatu ditugu (AZP3:44-45)

- Jorratuko den gaian sartzea.

- (10) IG: **Arratiako** txekorrak / nola bukatzen da esaera zaharra: / txikerrak baina gogorrak ezta / ba al dakizue nora noan gaur? / ba **Arratia** bailarara / hain zuzen ere / Zeanurira (HP3:1-2)
- (11) MI: **kurtsoaren** amaieran gaude ta ez dakit euskararen osasuna edo euskararen egoera / eh **kurtsoka** neurtu daitekeen baina **kurtsoka** neurtzen ditugu hainbat gauza / eta **kurtsoka** jartzen diogu nota gure ikasleei / eta **kurtsoka** egiten dira hainbat gauza (AZP1:1-3)
- Esandakoa laburbiltzea.
    - (12) A: bai bai baina **modu sinbolikoan**  
MI: baina ya **modu [sinbolikoan**  
A: **metaforikoan]**  
MI: **sinboliko eta metaforikoan** izan dela eta behingoz zure izena oso ongi esan dudala (AZP1:14-17)

Ondoren, solaskidetzarekin<sup>8</sup> lotutako corpuseko errepikapenen adibide batzuk ekarriko ditugu, proposatutako funtzioak hobeto ulertu eta ikusarazteko:

- Solaskidetzaz jarraitzeko galdera erretorikoa.
  - (13) A: **bai bai** eoten gea  
IG: **bai** eh?  
A: **bai bai bai** (HP1:41-43)
  - (14) B: nik **hogeitahiru**  
IG: **hogeitahiru?** / zerta ai haiz? (HP1:89-90)
- Aurkeztea eta agurtzea.
  - (15) MI: esan bezala **Arnaldo Otegi** dagoeneko **Azpimarraren** sofa gorrian jesarrita / **Arnaldo Otegi** / gabon eta milesker **Azpimarrara** etortzeagatik (AZP2:1-2)
  - (16) MI: eh:: **pentsatzen** hasita / zail egiten zitzaidan **pentsatzea** **Azpimarran** / hainbeste **Azpimarra** egin ditugun **Azpimarra** honetan etzarela sekula egon (AZP2:4-5)
- Hizketako hutsuneak betetzea.
  - (17) A: bai: / gustora daon denboran **ordun** / e **ordun** lanak ya a ya juten da beste / hurrengo (HP1:57)

<sup>8</sup> Solaskidetzaz edo interlokuzioa, berbazko edota bestelako zeinuen bidezko elkartrukea da (Garcia-Azkoaga, Diaz de Gereñu, Imaz eta Alegria, 2010).

- (18) A: klaro edo itxaron] behardugu ez dakit **ze / ze ze** puntu heldu arte (AZP1:91)

Jarraian, aurretik aipatutako taldeetan sartzeko zailtasunak edo ezintasunak izan ditugun funtzioak eta adibideak ekarriko ditugu:

- Indargarriak.

(19) IG: baserritarrak beti **dirurik ez ta diruri ez ta** eh (HP1:69)

(20) IG: **zenbat ateratzen** dituk? / **zenbat potoka?** // eh **zenbat potoka ateratzen?** (HP2:143)

- Pentsatzeko/diskurtsoa eraikitzeke denbora egitea.

(21) A: bai ardik ta ahuntzak baino: bueno eh: / **guk ez diau:** / **eztiau** gero behar deuna (( ))(HP2:41)

- Akatsak zuzentzea.

(22) A: bai azken finean askotan ahaztu egiten dugu **hizkuntzen artean hiztun / hizkuntzen atzean hiztunak** daudela (AZP1:53-54)

(23) A: eta orduan ekingo diogu gure herriaren **berresku / berreuskalduntzeari**(AZP1:91-92)

#### 4. AZTERKETAREN EMAITZAK

Jarraian azterketa egiterakoan bildutako emaitzak aurkeztuko ditugu; honetarako emaitzak bi ataletan bereiziko ditugu; batetik, *Herri People* programari dagozkionak, eta bestetik, *Azpimarra* programari dagozkionak. Honez gain, emaitzak bi zatitan bereiziko ditut; errepikapen motak eta errepikapenaren funtzioak.

##### 4.1. *Herri people* saioaren emaitzak

###### 4.1.1. Errepikapen motak

Esan bezala, errepikapen motei erreparatzerakoan, auto-errepikapen eta hetero-errepikapenei jarriko diegu arreta, izan ere, bi testu genero hauek desberdintzeko unean alderdi esanguratsu eta baliagarria dela ikusiko dugu.

Lehendabizi, *Herri People* programari dagozkion hiru testuetan ageri diren auto-errepikapenak eta hetero-errepikapenak zenbatu dira, bien artean kopuruari dagokionez alde nabarmenik ageri den edo ez ikusteko.

Beheko taulan, *Herri People* programako testuen transkripzioetan aurkitutako errepikapenak auto-errepikapen edo hetero-errepikapen diren arabera zenbatu dira:

### 3. TAULA: AUTO/HETERO-ERREPIKAPENEN KOPURUA

	Auto-errepikapenak	Hetero-errepikapenak
<b>HP1</b>	48	51
<b>HP2</b>	44	55
<b>HP3</b>	36	46
<b>GUZTIRA</b>	128	152

Emaitzei erreparatuta, ikus daiteke auto-errepikapenen eta hetero-errepikapenen kopurua nahiko berdintsua dela, hala ere, guztira 24 bat hetero-errepikapen gehiago ageri dira. Emaitza hau, *Herri People*ko hiru testuetan ikus daiteke; gutxigatik bada ere, hiru testuetan modu erregularrean hetero-errepikapen gehiago ageri dira auto-errepikapen baino.

Jarraian, corpusean ageri diren auto-errepikapenen eta hetero-errepikapenen zenbait adibide ekarriko ditut bien arteko aldea hobeto argitze aldera.

- Auto-errepikapenei dagokienez:
  - (24) IG: baserritarrak beti **dirurik ez ta diruri ez ta** eh (HP1:69)
  - (25) IG: **Arratiako** txekorrak / nola bukatzen da esaera zaharra: / txikerrak baina gogorrak ezta / ba al dakizue nora noan gaur?/ ba **Arratia** bailarara / hain zuzen ere / Zeanurira (HP3:1-2)
- Hetero-errepikapenei dagokienez:
  - (26) IG: **paraje edarra dakazue** hemen eh?  
A: **paraje edarra dakau** Ernion (HP1:61-62)
  - (27) IG: **gurdi zahar** edarra dakazu  
A: **gurdi zaharra** baina ba badabil eh (HP3:108-109)

#### 4.1.2. Errepikapenaren funtzioa

Garapen tematikoarekin lotutako funtzioak, solaskidetzarekin lotutako funtzioak eta hauez gain, bestelako funtzioak bereizi eta aztertuta, esan daiteke *Herri People* programa osatzen duten corpuseko hiru testuetan garapen tematikoarekin zein solaskidetzarekin zerikusia duten funtzioak ageri diren arren, solaskidetzak askozaz ere presentzia eta garrantzia handiagoa duela.

Garapen tematikoari dagokionez, ageri diren funtzioak murrizak izan arren, hauetako zenbait agertzen dira, besteak beste:

- Erantzuna garatzea galderaren zatia oinarri izanda.
  - (28) IG: **nora joango** gea oin // gaztaineta o nora **jun behar deu**?  
A: eh: bai / aber aittonan bila **joan behar deu** (HP1:146-147)
- Esandakoari informazioa gehitzea.
  - (29) A: badakizu segadora ez tet **ikasi / ikesten** baldin badet beti erabili beharko det ba(HP1:130)
- Erabilera orokortu edo lexikalizatuak.
  - (30) IG (off): ba hitzak alperrik daudenean hobea dela **isil isilik** geratzea (HP3:208)

Hala ere, solaskidetzarekin lotutako errepikapenen agerpena askoz ere esanguratsuagoa eta azpimarragarriagoa da. Hauen artean, gehien lekukotzen direnak honakoak dira:

- Galdera bati baiezkoa erantzutea.
  - (31) IG: **paraje edarra dakazue** hemen eh?  
A: **paraje edarra dakau** Ernion (HP1:61-62)
- Hitz-txanda mantentzea (lehiaren ondorio).
  - (32) A: **baina** gu **lehengo** jende  
IG: a: hola bai:  
A: **baino lehengo**:  
B: (( )) etorri zea ta  
A: **baina lehengo**: / **lehengo** pertsonak gea gu / lehendikan (HP1:99-103)
- Arreta mantentzen ari dela markatzea.
  - (33) C: **morkola aletzeko**  
IG: **morkola aletzeko** (HP1:171-172)
- Solaskidetzaz jarraitzeko galdera erretorikoak.
  - (34) A: **bai bai** eoten gea  
IG: **bai** eh?  
A: **bai bai bai** (HP1:41-43)
- Hizketako hutsuneak betetzea.



(35) A: bueno eh: / guk **ez diau:** / **eztiau** gero behar deuna  
(HP2:41)

#### 4.2. *Azpimarra* saioaren emaitzak

##### 4.2.1. Errepikapen motak

Bestetik, *Azpimarra* saioari dagozkion hiru testuetan ageri diren auto-errepikapenei eta hetero-errepikapenei erreparatuta, kasu honetan desberdintasun argia ageri dela ikus daiteke.

Beheko taulan, *Azpimarra* programako testuen transkripzioetan aurkitutako errepikapenak auto-errepikapen edo hetero-errepikapen diren arabera zenbatu dira:

#### 4. TAULA: AUTO/HETERO-ERREPIKAPENEN KOPURUA

	Auto-errepikapenak	Hetero-errepikapenak
<b>AZP1</b>	53	16
<b>AZP2</b>	67	5
<b>AZP3</b>	47	13
<b>GUZTIRA</b>	167	34

Emaitzei erreparatuta, esan bezala, hiru testu hauetan ezberdintasun handia ageri da auto-errepikapenen eta hetero-errepikapenen kopuruaren artean; guztira, taulan ageri den moduan 133 bat auto-errepikapen gehiago ageri dira. Bi errepikapen moten arteko alde nabari hau, hiru testuetan ageri da, ondorioz, ditugun datuetatik abiatuta, auto-errepikapenen erabilera ugaria testu generoari dagokion ezaugarrietako bat dela esan daiteke. Jarraian, corpusean ageri diren auto-errepikapenen eta hetero-errepikapenen zenbait adibide emango ditut hauek nola gauzatzen diren ikusteko.

- Auto-errepikapenei dagokienez:

(36) A: **nik uste dut** behar dela:: / bidea eman sentimendu guzti hoiei eta nahi guzti hoiei / eta **nik uste dut** eh:: / **herri honek behar dula** // zintzoki egin erreflexio sakon bat / **herri honek behar du** ispiluaren aurrean jarri // **herri honek** azterketa zorrotz bat **behar du** / eta: **herri honek behar du** baikortasunez begiratzea etorkizuna / eta **nik uste dut** hori egiten baldin badugu  
(AZP2:52-56)

(37) A: baina guk jarraitu genun gure **agendarekin** eta beraz guk geneukan **agenda bat** / baina **herriak** beste **agenda bat** zeukan eta **herri** hau aldatu nahi dugunak **agenda herriarekin** egin behar dugu (AZP2:72-74)

- Hetero-errepikapenei dagokienez:

(38) A: hizkuntz eskubideak bermatzeko protokolo horrekin guk zentroan **hiztunak** jarriko ditugu / **hiztunak** modu indibidualean / baina **hiztunak** noski **modu kolektiboan**

MI: m:: / seguraski **hiztunak modu kolektiboan** / erdigune hortan jarritz (AZP1:59-62)

(39) MI: baino zuk nola ikuste dezu **botila** momentu honetan bi mila ta hamaseiko uztaillaren lehenengo honetan?

A: bai nik beti diñot / kontua dala **botila** hori **bete bete** egin behar dela / askotan denbora gehiegi ematen dugu ea **botila** erdi hutsirik edo erdi **beterik** dagoen eztabaidatzen ta nik uste kontua dala **botila bete** egin behar dela / ta klaro **botila betetzeko** hainbat modutara egin daiteke / tantaz tanta **bete** edo iturri baten azpian jarri eta benetan botila hori ahalik eta arinen **bete** (AZP1:29-35)

#### 4.2.2. Errepikapenaren funtzioa

*Azpimarra* programa osatzen duten corpuseko hiru testuetan ageri diren errepikapenei erreparatuta, *Herri People* programan ikusitakoaren kontrara, honetan, garapen tematikoarekin lotutako errepikapenak ugariagoak eta garrantzitsuagoak dira. Izan ere, ondorengo atalean argitzen joango garen moduan, bi genero hauen artean dagoen ezberdintasun oinarritzako bat, bakoitzaren helburu komunikatiboa da. Genero bakoitzaren helburuak, funtzio jakin batzuen agerpena bideratzen duela dirudi; *Azpimarra* programaren kasuan, helburu informatiboagoa duen testua izanik, garapen tematikoarekin lotutako errepikapenak agertzen dira.

Hala ere, solaskidetzari lotutako hainbat errepikapen ere ageri direla ikus daiteke, besteak beste:

- Baiezko erantzuna ematea.

(40) MI: ze gazte ta ze guapo ginen / **orduan ere** / [**orduan ere**

A: **orduan ere]** horixe / **orduan ere** (AZP1:152-153)

- Ulertu ez dena berriro esatea.

(41) AO: **hemengo promozioaren ondoren ta ondorioz**

MI: zer?

AO: **hemengo promozioaren ondoren eta ondorioz** segurasko  
(AZP3:15-17)

- Arreta mantentzen ari dela markatzea.

(42) MI: eta kartzelara sartu zintuztenean zeneukan alaba txiki bat  
hamabi hamahiru urte bueltan zituena / seme gazte bat / orain ere  
gaztea dena

A: **bai**

IM: baina gaztea

A: **bai**

IM: zeneukan ama bizirik

A: **bai**

IM: amaginarreba bizirik

A: **bai**

IM: eta sei urtez hau guztia sostengatu duen bikote bat ere izan  
duzu

A: **bai** (AZP2:23-33)

- Aurkeztea eta agurtzea.

(43) MI: eh:: **pentsatzen** hasita / zail egiten zitzaidan **pentsatzea**  
**Azpimarran** / hainbeste **Azpimarra** egin ditugun **Azpimarra**  
honetan etzarela sekula egon (AZP2:4-5)

- Hizketako hutsuneak betetzea.

(44) A: klaro edo itxaron] behar dugu ez dakit **ze** / **ze ze** puntu heldu  
arte (AZP1:91)

Esan bezala, garapen tematikoa oinarrian duten errepikapenak dira gehien  
lekukotzen direnak. Hauek dira ageri diren funtzio nagusiak:

- Erantzuna garatzea galderaren zatia oinarri izanda.

(45) MI: zer egin behar dezu **udaran** / Paul Bilbao?

A: ba **udaran** eh: / ba hurrengo hilabete osoa protokoloarekin  
esan bezala eh: (AZP1:103-104)

- Esandakoari informazioa gehitzea.
  - (46) A: nik **badakat kezka** / lehen esan didazu / ikasturte balorazio / nik **badakat kezka** euskara gero ta atzerago ari dela geratzen hainbat eztabaidatan ta horrek **kezkutzen** gaitu (AZP1:82-84)
- Diskurtsoa garatzea.
  - (47) A: jendartearen lehentasunak aldatu egin ziren / baina guk jarraitu genun gure **agendarekin** eta beraz guk geneukan **agenda bat** / baina **herriak** beste **agenda bat** zeukan eta **herri** hau aldatu nahi dugunak **agenda herriarekin** egin behar dugu (AZP2:72-74)
- Zerrendatzea.
  - (48) A: lehiatila **batera** / ikuskizun **batera** / denda **batera** / banku **batera**: (AZP3:96)
- Hitz-txanda hartu eta honetatik abiatuta hitz hartzea garatzea.
  - (49) MI: baino zuk nola ikuste dezu **botila** momentu honetan bi mila ta hamaseiko uztailearen lehenengo honetan?  
  
A: bai nik beti diñot / kontua dala **botila** hori **bete bete** egin behar dela / askotan denbora gehiegi ematen dugu ea **botila** erdi hutsirik edo erdi **beterik** dagoen eztabaidatzen ta nik uste kontua dala **botila bete** egin behar dela / ta klaro **botila betetzeko** hainbat modutara egin daiteke / tantaz tanta **bete** edo iturri baten azpian jarri eta benetan **botila** hori ahalik eta arinen **bete** (AZP1:29-35)
- Zerrendatze bidezko diskurtso eraikitzea.
  - (50) A: baina **esan** dezaket eta **esaten** nuen / ta horrela aipatu atera nintzen ez / ni **euskaldun bezela** sartu ninduten / **euskaldun bezela** atera naiz // **independentista** sutsu bezela sartu ninduten ta **independentistagoa** atera naiz // **ezkerreko** bezela / sartu ninduten / ta **ezkerretik** eh:/ ta **ezkerreko** bezela atera naiz (AZP2:16-19)
- Esandakoa modalizatzea edo zehaztea.
  - (51) MI: euskal: zale garenontzat **eraso** izan diren **alderdiak** edo **erasoak** jaurti dituzten **alderdiak** aipatu ditugu (AZP3:44-45)
  - (52) A: oso estresantea da // eta hori da eh: / herri honetan / **elebakarrek** / **erdaldun elebakarrek** (AZP3:94-95)

### 4.3.SAIOEN ARTEKO KONPARAKETA

Behin corpuseko testu bakoitzean ageri diren errepikapen mota eta funtzioak aztertu ostean, ateratako emaitzetan oinarrituta, corpusean bildu ditugun kazetaritzako bi generoen ezaugarritzeari ekingo diogu.

Errepikapen motari dagokionez, goiko emaitzetan ikusi bezala, *Herri People* programan auto-errepikapenen eta hetero-errepikapenen kopurua nahiko orekatua den arren, hetero-errepikapen gehiago ageri dira. Hau saioaren helburu komunikatibo nagusiaren mende ikusi beharra dago, izan ere, programa honetan, Euskal Herriko kulturaren eta bizimoduaren erakusgarri diren pertsonak ezagutzera eman nahi dira modu oso ludikoan egindako elkarrizketen bitartez; sarritan hitz hartze laburrekoak eta oso dialogikoak, solas arrunten erakoak. Honez gain, beste programarekin alderatuta, nahiz eta programa formala izan, *Azpimarra* saioak baino informaltasun maila handiagoa du. Elkarrizketatuarekin nolabaiteko gertutasuna bilatzen eta erakusten du elkarrizketatzaileak. Honegatik, hetero-errepikapenen agerpen ugaria ikus dezakegu, hauen bidez, genero honetan solaskidetza alderdiaren indarra erakusten da, hizlarien arteko elkarrekintzan harremana eraikitzearen garrantzia erakutsiz. Informazioa ematea garrantzitsua da, baina *Azpiarrarekin* alderatuta, elkar ezagutzak eta honekin lotutako giza harremanak pisu handiagoa du *Herri People* programaren kasuan.

*Azpimarra* programaren kasuan ordea, ikusi bezala, auto-errepikapenen kopurua hetero-errepikapenena baino askoz ere altuagoa da. Hau programaren nolakoaren ondorio da, izan ere, *Herri People* programarekin alderatuta, elkarrizketa formalago baten estiloari jarraitzen dio. Honetan, elkarrizketatzailearen hitz hartzeak edo galderak laburragoak dira, elkarrizketatuaren hitz hartzeak baino. Honek nolabait moteldu edo lausotzen du partaideen arteko elkarreragina, izan ere, gehiengoa elkarrizketatuaren jarduna da. Honez gain, auto-errepikapenen agerpen ugariak ere badu zerikusia aipatutakoarekin, izan ere, elkarrizketatuak hauek baliatzen ditu, bere jarduna edo hitz hartzea sakondu eta garatzeko. Bestetik, hitz hartze gutxiago egoteak, berarekin dakar hetero-errepikapen gutxiago egotea, izan ere, esan bezala, hetero-errepikapenak egoera dialogikoenetan ageri dira gehienbat.

Errepikapenen funtzioari erreparatuta, honi dagokionez ere alde nabariak ageri dira aztergai diren bi generoen artean.

*Herri People* programan, emaitzetan ikusi bezala, garapen tematikoa oinarri duten errepikapenak agertzen diren arren, solaskidetzarekin loturiko errepikapenak dira gehien ageri direnak eta esanguratsuenak. Ikusi bezala, hauen artean ageri direnak, besteak beste, galdera bati baiezkoa erantzutea, hitz-txanda mantentzea eta galdera erretorikoak dira. Hauei erreparatuta ikus daiteke, goian aipatu bezala, errepikapen hauek gehienbat testu generoaren izaera dialogikoa oinarri hartzen duten errepikapenak direla, izan ere, solaskidetzaren elkarrekintza eraikitzea ahalbidetzen duten errepikapenak dira hauek. Ondorioz, esandako generoaren izaera dialogikoagoa eta informagoa dela eta, solaskidetzarekin loturiko errepikapen gehiago ageri dira.

Bestetik, *Azpimarra* programari erreparatuta, honetan ere, aurrekoarekin bezala bi motatako errepikapenak lekukotzen diren arren, *Herri People* programan ikusi dugun kontrara, honetan garapen tematikoarekin lotutako errepikapenek dute nagusitasuna. Hauen artean, hainbat funtzio ezberdin ageri dira: zerrendatze bidezko diskurtso eraikitzea, erantzuna garatzea galderaren zatia oinarri izanda, esandakoari informazioa gehitzea diskurtsoa garatuz, besteak beste. Era honetako errepikapenen agerpena ohikoa da *Azpimarra* bezalako programetan, izan ere, esan bezala, mota honetako elkarrizketetan, elkarrizketatuak erantzunak luze eta sakon garatzen ditu, gaiari eta adierazi nahi duenari zehaztasuna emanez. Honegatik, diskurtsoaren garapen hau ahalbidetzeko era honetako errepikapenak ageri dira. Bestetik, generoaren nolakoari erreparatuta ere, alderatutako beste generoan baino hitz-txanda gutxiago egoteak ere bideratzen du era honetako errepikapenen agerpena.

## **5. ONDORIOAK**

Sarreran esan bezala, lan honetan, errepikapenen balio, mota eta funtzioak zeintzuk diren eta hauen garrantzia eta erabilera zehazten saiatu gara. Azterketa mugatu eta hertsatzeko, bi ikus-entzunezko kazetaritza testu genero hartu ditugu oinarri, hauetatik abiatuta, bakoitzean ageri diren errepikapenei erreparatuta, bi ahozko generoen artean errepikapenen agerpen eta erabilera alderik dagoen zehazteko.

Honetarako, lehendabizi atal teorikoan, orain arte egindako azterketak eta lanak kontuan hartuta errepikapena zertan datzan eta honen motak eta funtzioak zeintzuk diren zehazten saiatu gara. Honekin batera, solasari ere erreparatu diogu, errepikapenek honetan duten eragina ikusteko asmoz. Honez gain, gai hau oinarri hartuta euskaraz egindako lanak oso ugari ez direnez, euskaraz honen gainean egindako azterketak bildu nahi izan ditugu ikerketaren momentuko egoera zein den erakusteko.

Bestetik, atal praktikoan, behin corpusean ageri diren errepikapenak identifikatu ostean, hauek sailkatzeari ekin diogu errepikapen motari eta funtzioari erreparatuta. Hau egiteko, gehienbat Garcésen (2004) eta Larrazabal eta Larringanen (2007) lanak hartu dira oinarri hauetan erabilitako metodologia lanean aurrera egiteko baliagarri izan delako, baina funtzio berriak ere proposatu ditugu.

Corpuseko errepikapenak sailkatu eta aztertu ostean, bi generoen konparaketa egiterako orduan, hasiera batean egindako hipotesia berrestu ahal izan dugu, izan ere, konparaketa honetan, bi generoen arteko alde nabariak ageri direla agerian geratu da. Bi genero hauen artean dauden errepikapenak mota ezberdinetakoak izateaz gain, hauek saio bakoitzean betetzen dituzten funtzioak ere ezberdinak direla erakutsi dugu, era honetan, generoak haien artean ezberdinduz eta ezaugarrituz.

Amaitzeko, lanean zehar izandako zenbait arazo eta oztopo aipatuko ditugu. Izan ere, azterketa egiterako unean, hasieran uste baino metodologia arazo gehiago izan dira. Batetik, corpusean ageri diren errepikapenak zenbatzerako unean hainbat zailtasun izan ditugu, zenbaitetan, errepikapen ugari ageri direlako jarraian, bestetan, errepikapenak testu zati zabalean hedatzen direlako, etab. Bestetik, errepikapenen funtzioak identifikatzerako unean, corpusean ageri diren guztiek Garcésen (2004) emandako sailkapena gainditzen dutenez, corpusari egokitzeko funtzio berriak ezaugarritu eta identifikatu behar izan ditugu.

Edonola ere, lan honetan, errepikapenaren erabilera anitzak aztertzeko aukera izan dugu eta honez gain, errepikapenek testu generoarekin izan dezaketen lotura ikusi dugu. Lana bukatuta, errepikapenek duten garrantzia eta balioa azpimarratu beharrean gaude, izan ere, hauek ez dira inolaz ere baztergarriak.

## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Alegria, A. (2009): “Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai”, *Euskera*, 54, 2-1, 2009, Bilbo, 771-809.

Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (2001): *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*, Bartzelona: Ariel.

Camacho, M.M. (2009): *Análisis del discurso y repetición: palabras, actitudes y sentimientos*, Madrid: Arco Libros.

Charaudeau, P. & Maingueneau, D. (2005): *Diccionario de Análisis del Discurso*, Buenos Aires: Amorrortu.

Fuentes, C. (2014): “*Salvados por la cortesía estratégica*”, *Revista de Filología*, 32, 2014, 99-124.

Garcés, M.P. (2004): “La repetición: formas y funciones en el discurso oral”, *Archivo de Filología aragonesa*, 59-60, 1, 2004, 437-456.

Garcia-Azkoaga, I.M. eta Diaz de Gereñu, L. (2009): “Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena”, *Euskera*, 54, 2-1, 2009, Bilbo, 723-770.

Garcia-Azkoaga, I.M.; Diaz De Gereñu, L.; Imaz A. eta Alegria A. (2010): “Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan”, *TANTAK*, 22, 1zk, 7-42. Hemendik eskuratua: <<https://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak/article/view/2187/1805>>, [21/05/21].

Koch, P. eta Oesterreicher, W. (2007): *Lengua hablada en la Romania: español, francés, italiano*, Madrid: Gredos.

Larrazabal, E. eta Larringan, L.M. (2007): “Irrati-elkarrizketa: ahozko genero formal baten deskribapena”, in Idiazabal, I. eta Garcia I.M. (ed.), *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, Euskara errektoreordetzaren sare argitalpena, 66-85. Hemendik eskuratua: <[https://ikasmaterialak.ehu.es/hezkuntza/ahozko-hizkuntza/04\\_irrati\\_elkarrizketa.pdf](https://ikasmaterialak.ehu.es/hezkuntza/ahozko-hizkuntza/04_irrati_elkarrizketa.pdf)>, [21/05/21].



Larringan, L.M. eta Idiazabal, I. (2008): “Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta”, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra*, Iker 19, Bilbo: Euskaltzaindia, 29-38.

Rodríguez, M. (2004): “Géneros periodísticos: para arropar su hibridez”, *Estudios sobre el mensaje periodístico*, 10, 2004, 319-328.

Santamaría, C.D. (2011): *La entrevista periodística: ¿Género o Herramienta?*, (Doktorego tesia), Facultad de Ciencias de la Comunicación, Santiago de Compostela. Hemendik eskuratua: <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=41869>>, [19/04/24].

Tusón, A. (2002): “El análisis de la conversación: entre la estructura y el sentido”, *Estudios de Sociolingüística*, 3.1, 2002, Bartzelona, 133-153.

## 7. ERANSKINAK

### ERANSKINAK 1: TRANSKRIPZIO IRIZPIDEAK

Oinarrian, Val.es.co taldearen transkripzio irizpideak erabili dira; zehazki honako hauek:

- A: A moduan identifikatutako hizlariaren hitz hartzea.
- [ Gainjartze bat hasten den tokia.
- ] Gainjartze bat amaitzen den tokia.
- / Etenaldia, segundo erdi baino laburragoa.
- // Segundo erdi eta segundo baten arteko etenaldia.
- /// Segundo bat edo gehiagoko etenaldia.
- (5") Bost segundoko isilunea, parentesi artean zenbaki bidez zehaztuko dira segundoak.
- (( )) Zati ulertezina.
- ((azpintxe)) Zalantzazko transkripzioa; parentesi artean ulertutako hitza zehaztuko da.

Hala ere, irizpide hauei egindako aldaketak edo gehitutako irizpideak honako hauek dira:

- ? ! Galderetan eta harriduretan, ikur bakarra amaieran.
- (barreak); ... Parentesi artea barreak edo edizio mozketak.
- (off) Edizio bidez gehitutako off ahotsak.
- Luzapen bokaliko eta kontsonantikoak adierazteko ez da Val.es.co taldearen irizpideetan ageri modua jarraitu; honi dagokionez, luzapen bokaliko eta kontsonantikoak : bidez adieraziko dira.
- Beste hizkuntza bateko hitzak (gaztelania, ingelesa) jatorrizko hizkuntzan idazten diren moduan idatzita.

## ERANSKINAK 2: TRANSKRIPZIOAK

Eranskin honetan, azterketa gauzatzeko aukeratutako ahozko bi testu generoren sei laginen transkripzioak jasotzen dira.

Corpuseko lehen hiru testuak Herri People programatik hartuak dira. Ibon Gaztañazpi kazetariak aurkeztutako programa honetan, Euskal Herriko herri ezberdinetako biztanleen istorio, bizipen eta bizi esperientziak jasotzen dira elkarrizketa laburren bidez; era honetan, herri bakoitzeko bizitzaren berri ematen da.

Corpuseko beste hiru testuak Azpimarra programatik hartuak dira. Maddalen Iriartek aurkeztutako programa honetan, gaurkotasuneko gaiak jorratzen dira eztabaida eta elkarrizketa oinarri hartuta.

	Herri People			Azpimarra		
Laburdura	HP1	HP2	HP3	AZP1	AZP2	AZP3
Orrialdeak	34-41	41-48	48-55	55-59	60-64	64-68
Minutuak	9' 12"	10' 7"	9' 39"	9' 33"	10' 13"	7' 41"
Guztira	28' 58"			27' 27"		

### HP1: Oier Urkola eta Gloria Escudero, Errezilgo baserritarrak

<https://www.youtube.com/watch?v=ljAQcVv6bLs>

Ibon Gaztañazpi (IG) Errezilgo baserri batera doa elkarrizketa egitera eta bertara iristean, emakumea (A) soroan lanean topatzen du. Emakumeaz gain, honen gizona (C) eta iloba (B) ere elkarrizketatzen ditu landa inguruan.

- 1 (musika 12")
- 2 IG: ie: ai: e::
- 3 A: ez ez ez ez ez
- 4 IG: egunon Gloria
- 5 A: ba:i hola bai zuri ere Ibon
- 6 IG: konf / hau ze fidatzeko modukoa ahal da o?
- 7 A: ba:i / nerekin bai
- 8 IG: bai?
- 9 A: nerekin bai
- 10 IG: egun on
- 11 A: egun on
- 12 IG: ze moduz gera?

13 A: hementxe // oso ongi  
14 IG: bai?  
15 A: bai  
16 IG: ni oso ta naiz kalekumia e  
17 A: bai / kalekumea bueno  
18 IG: bate [konfiantzarik ematen  
19 A: zu jarri] baserrin ere jarriko zinake  
20 IG: bueno  
21 A: nolako lagunak datozen / nolako ingurua den / jartzen da [danea  
22 IG: hoietako] borondatea inportantea omen da / gauzak ikasteko eta  
23 A: oinarrizkoa da / oinarrizkoa da bai  
24 IG: ze: / eguneroko lanak iten edo?  
25 A: eguneroko lanak / baserrin egunero ezta kagu hemen langabezian ez gaude gu inoiz  
26 IG: hala esatezue  
27 A: ala / [egia da  
28 IG: hemen] jai ta ez omen da lana  
29 A: jai ta aste // lan gutxi inde jai ingo ahal bada / lana izaten deu bai beti  
30 IG: bakarrik aritzen al zea?  
31 A: bakarrikan / nago // bakarrik nago baserrin baina / seme alabak eta etortzen zaizkit  
32 eskua o: laguntza ematera ta aldamenekoak asko laguntzen / ikeagarri laguntzen gea  
33 IG: bestela zu zeuk aurrera ateratzezu  
34 A: bai bai  
35 IG: baserriko [martxa?  
36 A: bai / bai bai ni naiz hori: / nik mantenimendua nik daramakit / nola esaten da? ta gero  
37 / ze in behar degu gaur? / etorri ta ze lan daukazut a? beno ezta ikusten lanikan  
38 IG: zu kafia hartzen denbora asko eztera eongo zu eh?  
39 A: nola?  
40 IG: kafia hartzen ta tertulin ta etzeala denbora asko eongo  
41 A: bai bai eoten gea  
42 IG: bai eh?  
43 A: bai bai bai / hartzen degu (( )) / bestela  
44 IG: ederki  
45 A: hartzen deu bai hartzen deu / ta hainbeste denbora ta / gustora eoten gea / ta geo  
46 baitare / zerbaiti ara /// hura egin beharra zitxion / beste hura egin beharra zitxion ta: /  
47 oraintxe balio dik gehienak / tertuli ederra egin diu ta / adio

48 IG: bai

49 A: bakoitza bere tokire

50 IG: bai ta geuk askotan badakizu ze esate dan

51 A: egia dek

52 IG: baten batek eon / ta eongo gaituk ta eongo gaituk

53 A: bai hori da

54 IG: eongo gaituk / ta ba al dakik eongo gean? o:

55 A: bai ez e: momentuan momentuan

56 IG: orain eon gaitezen ta fuera

57 A: bai: / gustora daon denboran ordun / e ordun lanak ya a ya juten da beste / hurrengo

58 baten ingo da / lana hor eongo da

59 IG: to Erniope hontan

60 A: Erniopen ederki / laguntzen

61 IG: paraje edarra dakazue hemen eh?

62 A: paraje edarra dakau Ernion

63 IG: soinu gutxi

64 A: soinu gutxi ta: / (barre)

65 IG: soinua gutxi ez baterez [kotxe soinua ta

66 A: hemen] hemen dakau / hemen danetatik dakau / dirurik ez dirurik eztakau

67 IG: eztakit ba nik eh

68 A: (barre)

69 IG: baserritarrak beti dirurik ez ta diruri ez ta eh

70 A: akaso nonbait / igual eongo da e:

71 IG: zozer koltxoi azpi baten eo eh

72 A: koltxoi azpin ez baino toki hobeia eongo dala gordetzeko

73 IG: a bai eh

74 A: behientzat jatenak ekarri beharra dakagu:

75 IG: bale konforme

76 (moztuta edizioa)

77 IG: egunon gazte!

78 B: ie:up

79 IG: hemen laguntzaile pare bat

80 B: bai (( ))

81 IG: eh

82 B: bukatutakon

83 IG: Oier ezta?  
84 B: bai / Oier Oier  
85 IG: Gloria / biloba?  
86 A: bai biloba bai  
87 B: ala esateue  
88 IG: zenbat urte dituk Oier?  
89 B: nik hogeitahiru  
90 IG: hogeitahiru? / zerta ai haiz?  
91 B: hementxe (( )) ebakieu ta ontxe / behia ta txerria badazkau ta  
92 A: amonari laguntzen  
93 IG: haientzako ederki // ebaki: segakin ez ez?  
94 B: bai segakin  
95 IG: segakin eh?  
96 B: han tzek probatu nahi baldin badek  
97 IG: segakin eh? / baina oaindikan segan aritze altzeate?  
98 B: (( ))  
99 A: baina gu lehengo jende  
100 IG: a: hola bai:  
101 A: baino lehengo:  
102 B: (( )) etorri zea ta  
103 A: baina lehengo: / lehengo pertsonak gea gu / lehendikan  
104 IG: Gloria / hau apopilo hartu beharko zenuke  
105 A: apopilo  
106 IG: janak eta: / janak eta eman teilatu eman ta fuera  
107 A: apopilo ez / hori nagusi jarriko zat  
108 IG: hau?  
109 A: hoixe ingo  
110 IG: ezta erreza izango zeu ganetik jartzia be eh  
111 A: bai eh / gu bajatzen ari gaituk eh  
112 IG: eh:: eztakit nik / eztakit nik  
113 A: bai ba  
114 IG: lanerako ta / baina oraindikan  
115 B: holan hobe / astein behin etorri ta holan lagundu iteio / bestela egunero hasizkero  
116 (( ))  
117 IG: a hori ere bai

118 B: astean behin  
119 A: ikeagarri ondo hartu behar du  
120 IG: astean behin lanera etorri ta hiruretan o hamaiketako itea  
121 (barre)  
122 B: hori duk  
123 IG: ondo /// zu segan aritutakoa al tzea?  
124 A: ni bai  
125 IG: bai eh?  
126 B: bai / astontzako uzten dun horietakoa  
127 (barreak)  
128 A: bueno Oier danak ez esan eh  
129 IG: ederki / makina pasako zinun hemen eh / segak eta eskobarik hartu ta  
130 A: badakizu segadora ez tet ikasi / ikesten baldin badet beti erabili beharko det ba / hori  
131 holan izaten da  
132 IG: ez ikasi ordun  
133 (barreak)  
134 A: ez / esaten zun osaba batek esaten zun / behin iten bazu ta ikasten bazu beti zuk egin  
135 beharkozu  
136 IG: akabo akabo  
137 B: bueno nahiko kontu egiten ari haiz ta (( )) egin beharra dao ze kristo  
138 IG: hi / benga / tita in ta jarri ingo nauk eh  
139 B: benga benga  
140 IG: bai? // benga / goazen / aber // mirko txarra // benga ni berai  
141 A: ze in behar dek!  
142 (moztuta edizioa)  
143 IG (enoff): osotara kalekumea izatea ezta inolaz ere muga zenbait lanean jarduteko //  
144 sardea hartu ta belarra biltzeko / sasoi pixka bat bai / baina batez ere gogoia behar baita /  
145 amona bilobekin lanera noa /hamaiketakoa irabazteko esperantzan  
146 IG: nora joango gea oin // gaztaineta o nora jun behar deu?  
147 A: eh: bai / aber aittonan bila joan behar deu  
148 IG: bai? / benga goazen  
149 IG: han gaztain ((azpintxe)) jarriko gea / gaztain azpin  
150 A: aber nun degun / aittona  
151 IG: hamen Enrike /// egunon Enrike!  
152 C: bai / buenos dias señores

153 IG: buenos dia // (barreak) / buenos dias ze buelta eginda? / bate gaztainerik bal dao?  
 154 C: ez / ez dao ((neron)) kabitzen eh  
 155 IG: aber / ze (( )) dezun  
 156 C: ze? / gaztaina mordua  
 157 IG: gaztaina mordua // hauek banaka banaka kentzen al zaio goiko zea?  
 158 A: a bai  
 159 IG: goiko:: [azala  
 160 A: azala]  
 161 C: morkalak hiru:: // hiru ale ale // badauzka / batzu  
 162 IG: morkala? / zer da?  
 163 A: lortotxa / gaineko azala / [arantzakin izaten da  
 164 C: gaineko azala]  
 165 A: ikusi al duzu inoiz?  
 166 IG: bai bai / karo hori bai / arantzakin / hori bizi bizia // trikua bezelako zea  
 167 A: trikuak bezelakozeaxe  
 168 IG: Enrike / itaia zertako eramatezu? / komunista etzea izango  
 169 A: (barre)  
 170 IG: eh  
 171 C: morkola aletzeko  
 172 IG: morkola aletzeko  
 173 C: larrutzeko (( )) eskukin ///  
 174 IG: a karo / eskukin atera ezin  
 175 A: ezin [atera ezin  
 176 IG: iztu daolako]  
 177 A: arantza dakalako / arantzia  
 178 IG: ta horrekin ataratzeozu  
 179 A: ta horrekin kriska atara  
 180 C: honekin ta:: / (( ))  
 181 IG: bueno bueno // aurten gaztaina asko izan ahal da o?  
 182 C: ba ba: / iez baino gehio (( ))  
 183 A: iez etzan hemen / aurten // dexente gaztain izan da Enrike baino txikia alea  
 184 C: iez bezalakue [a: o: a:  
 185 A: ale txikia]  
 186 C: ale derra (( ))  
 187 A: aber // baino handia



188 IG: eh: // ez jasotakua /// bueno / euria hasi du ta barrura joan beharko deu  
189 A: goazen  
190 C: bai  
191 IG: ia etxeoandrak ze eskeintzen digun o /// baserri honetan jendia / besteak beste  
192 etortzen da euskeraz ikastera ezta  
193 A: bai:  
194 IG: aspalditik al dator? / o jende asko pasa da?  
195 A: hemendikan aspaldian ba / oain dela:: // hogeitahamsei bat urte / hasi ginan  
196 lehenengoak / eta gero oain azkeneko hamabost urte:: / hamabost urte:: hamasei urte  
197 hontan ezteu hartu / aurten azkenekoa hartu deu tokatu inda  
198 IG: eta gainera:: / ospetsu xamarra eh  
199 A: bai / ospetsu xamarra  
200 IG: Reyes ezta?  
201 A: bai  
202 IG: Reyes Prados  
203 A: Reyes Prados bai  
204 IG: aurkezlea /// andaluzikoa ez? / [Sevillarra  
205 A: bai Sevillakoa]  
206 IG: Sevillakoa // eta jarri al dezue o?  
207 A: ba bueno / bera izugarrizko interesa dauka / interesa / nola esango / gogoia dauka  
208 euskara // eta harrিতuta etorri zan honea // horrek ikasi du euskaltegian // ikasi du / ida  
209 idazten eta irakurtzen daki / pila bat  
210 IG: kategoria  
211 A: kategoria // hizketan / pixkat korapilatu iten da ta hori [nahi du  
212 IG: zer ber tzun] ahoa askatu ezta?  
213 A: bai / horixe askatzen ziela // baina nahi dudana / ondo ondo / ta gainera nahi du  
214 euskaldun zahar batek bezela hitz egin  
215 IG: erderaz / hitzerdirik ez? / zuon arten  
216 A: ez ez / eta berak hitz in zun bere gurasoekin / ta eztakizu ze ondo egiten duen  
217 sevillarrez // bere gurasokin egin zunean entzun nion eta: // oso [sevilla  
218 IG: azento itxiyakin]  
219 A: azento ea:rra hasten tzian // baina euskara izugarri maite du (barre)  
220 IG: oso ondo Gloria / aitu / ba eskerrrik asko!  
221 A: ba:i / ba ez horreatikan  
222 IG: baserria: / baserriko atek zabaltzeatik

- 223 A: bai bai
- 224 IG: bai / zuen ilobak ta behiak ta danak aurkezteatik
- 225 A: baserriko ateik ezteu ixten asike beti zabalik dao
- 226 IG: segi holaxe
- 227 A: ez eh: / zuei eskerrak / zuei eskerrak
- 228 IG: mokaua jango deu
- 229 A: bai / pixkat / ya garaia da zerbait hartzeko ta:
- 230 IG: gose pixkat bere ein deu ta:
- 231 A: bai lan pixkat ein deu ta:
- 232 IG: lan pixkat ein deu: / benga zozer jango deu
- 233 A: hori da
- 234 (bakarrik hitz egiten amaiera atala)
- 235 IG: bere abitatetik aterata animalia galdu egiten ei da / ta guri hoixe era gertatzen zaigu
- 236 baserrira etorri ta lanean jartzen gaituztenean / eskobaren bat itxuraz heltzeko gauza ez
- 237 gara oraindik / eskerrak baina mahaiaren girako jan edanak eta sutondoko hitz aspertuek
- 238 oraindik / itsastarrak kaletarrak ta menditarrak batzen gaituztela

**HP2: Juan Javier Azkarate, esnekiak egiten dituen nafarra**

<https://www.youtube.com/watch?v=HcmXXYr819c>

Ibon Gaztañazpi (IG) nafarroako Azkarate herrira doa bertako esne saltzailea (A) elkarrizketazera. Elkarrizketan, esnekiak egiteko prozesua erakustez gain, produktuen salmenta eta banaketa ere erakusten dira; honetako batean, dendako dendariak (B) ere hartzen du parte.

- 1 IG (off): Euskal Herriko parajerik goraiatuenen zerrendan / Aralarko Malloak daude
- 2 mendigainek basoek ta larrek bat egiten duten eremu ikusgarria // herri dotore askoak
- 3 ere badira han eta baita naturarekin / harmonian / bizi diren langile jendea ere / haietako
- 4 bat esnezalea da
- 5 IG: jota jota / egun on!
- 6 A: kaixo egun on
- 7 IG: gogor ari haiz
- 8 A: ba / edozer // lan pixkat egingo ote deun o
- 9 IG: bueno bueno / ahuntzakin
- 10 A: bai ahuntzakin buelta bat iten / goizen lan pixkat ein o lo qu esea ta:
- 11 IG: ederki / zenbat dauzkek?

12 A: a: mordoia bazeok / hoi bakik eztek esaten beti / zenbat izaten dian / batzuk hemen /  
13 beste batzuk goran ta:  
14 IG: o bestela gezurra esan  
15 A: ba:: / gezurra esanda ez haiz ondo geratzen / baino  
16 IG: danak ahuntzak ezta? / akerrik eta ez  
17 A: akerrik etzeok / gerotako gu geu gaudek preparauta / hi bezelaxe ta:  
18 IG: gero ni nahikoa deken  
19 A: bai: bai: bai: / alper alperrik baina hor gaudek  
20 IG: egia esango diat / lehenbiziko aldia Azkaratea // etortze ai nala / hau dek tokia hau  
21 eh:  
22 A: sanidade pixkat bazeok bai  
23 IG: harrituta geratu gaituk / askotan pasata bai / horra autobidetik eta / baina // Malluak  
24 eta ederki ikusteituk hemetik  
25 A: bai bai bai ikusten dek dena / e: Aralarko mendilerroa hortxe bista bistan daukazu ta  
26 bai // sanidade pixkat bazeok bai / hor (( )) erreka bazter hoietakoa zate ta:  
27 IG: bai gu  
28 A: gu hemen pixkat mendin / gogorrago eusten ziouk  
29 IG: zuek han ibiltzeatik gaizki / itsason da:  
30 A: a: bai: / gaizki gaizki / uretan gaizki / gu [seko  
31 IG: igeri egiten bal dakik?  
32 A: bai: bazekiu baina beti hankakin lurra ukitzea da por seacaso  
33 IG: hemendik behera ezta?  
34 A: ba::i // ondo busti gabe  
35 IG: iogurrak egiten dituk ezta?  
36 A: bai / iogurrak ta mamiak egiten dizkiau bai / iogurrak ta mamiak ta pixkat bazeok ba  
37 esne pixkat / ta hortxe eon bai // hortara dedikatzen naiz  
38 IG: dana / ahuntzan esneakin?  
39 A: ez ez / ardianakin / ardianakin  
40 IG: orduan dauzkak / ardik ta ahuntzak  
41 A: bai ardik ta ahuntzak baino: bueno eh: / guk ez diau: / ezta gero behar deuna (( )) /  
42 guk e:: / behar deun esne hoi produktu hoi egiteko esne guztia bildu iten diau eh / erosi  
43 iten diau // hau esan dezaun hobby bat o lan suplemento txiki bat dala // denbora pasa  
44 esaten (( )) / bai nahiko:: / bai azkenen lana bihurtzen dek ez / hobby bat bezela hartu ta  
45 azkenen lana bihurtzen dek baina bueno  
46 IG: hauek egunero egunero eskatzen dek ezta?

47 A: bai egunero egunero eskatzeiei bai ta ba: / beti zozer zegok / ta udan daudenean bai:  
48 ordun bake pixkat emateie baino  
49 IG: hi gauza bat egingo diau ordun / hauek barrura sartu  
50 A: bai ta pentsu pixkat eman  
51 IG: pentsu pixkat eman eta martxa egingo diau ia [iogurrak ta nola egiten dituken  
52 A: asunto] hoiek ikustera bai / berandu egiten ari zaiguk eta / [sartu  
53 IG: konforme] / jota jota hauek ez al deue (( )) egiten?  
54 A: (( )) pentsua dakak eta: pentsuakin bai bestela atzera nahago // to: makile baten bati  
55 bizkarreko bat eman nahi bare  
56 IG: urritz makila  
57 A: bai hori da / aiton handia haiz ta (( )) hik behar dek  
58 IG: (barre) aiton handia bai (( ))  
59 A: hi  
60 IG: hi honek loria bera behar izaten dik ezta?  
61 A: honek behera izaten dek  
62 IG: beti?  
63 A: beti behera / badakik kertena bezala // atzeti lorik / ta punta zorrotzan bukatu  
64 IG: entzun al dezue?  
65 A: ondo bultzatzeko // bueno Ibon emaiok pentsue benga // ots:: ots:: atzea!  
66 IG: aiba dio gora igota hi  
67 A: kapitan general  
68 IG: hau baino gauza zailoak bere badituk mundun  
69 A: a: exactamente / ta oin puxka bat kendu hoiei ta:  
70 IG: alde hemendik  
71 A: benga hoidek ots: ots: ots:: // ume iteko dauden // ikusi nahi al dok ume iteko dauden  
72 o ez?  
73 IG: bai / nola egiten diok / hau ikus dezakegu azpik eta lodi lodi daola  
74 A: lodi lodi daola ta orain / taka / hartu eskue ta sartu hor aber errapean aber (( )) haiz /  
75 hemen holaxe / sartu  
76 IG: non sartzen diok? / errapen?  
77 A: bai / emakume bezela  
78 IG: errapia ikutu?  
79 A: ba:i / ta ordun igarriko diok bero  
80 IG: errapia bete bete badaka ta [bero baldin badauka  
81 A: e::xactamente exactamente / horrek esan nahi dik

82 IG: umia egiteko

83 A: esto / ze sistematan funtzionatzen genin / baino horrea / aber ikusiko dik / benga

84 sartu

85 IG: honek atzera ez dik ingo

86 A: ez dik ingo atzera / eusten zioat nik

87 IG: a::: / ni kalekume konpletua zer dek ba:

88 A: bai:: bai:

89 IG: heldu hik horii eh!

90 A: hik aspaldin eztek errapeik ukitu ta

91 IG: epa:

92 A: suabe: / ikusten // eh

93 IG: bete betian sartu nauk

94 A: honek arkumea ingo dik

95 IG: harek

96 A: aspaldiko partez errapea ukitu dik

97 (moztea edizioa)

98 IG: bueno hemen iogurrak ta mamik iten dituk ezta?

99 A: bai bai / hoixe hoixe egiten ditut

100 IG: heu bakarrik jarduten al haiz?

101 A: ez arreba ni ta / arreba / ni ta:: amak bi esku botaizkik

102 IG: bai ezta?

103 A: gu baino geiao eiten dik / betiko etxeko andre hoietakoa ta

104 IG: lehen bi hitz egin dizkiu amakin / ta ondiño fundamentu pixkat badik eh

105 A: bai:: joe gu baino gehio oaindik

106 IG: esan dik / txukun atera telebistako ta eztakit

107 A: bai bai / oaindik gu baino gehio / lo que pasa es qu ebakik (( )) hemengo jendea ere

108 pixkat isun zamarra ere / isun xamarra / ta e:

109 IG: hori guren ere bai eh

110 A: ba:

111 IG: gure alderdin ta

112 A: leku guztitakoak

113 IG: hortan badakik zein dian brabuak? / bizkaitarrak

114 A: bai

115 IG: gure kamara hau dala bizkaiko

116 A: hoeik gaurko:

117 IG: txarrea ez eh: / baina diferente diferente  
118 A: haur ez baina saltari egiten die  
119 IG: pasako gea?  
120 A: bai pasa ingo gatxiak  
121 IG: jota jota hau al deu lantegia?  
122 A: bai / lantegia hau dek hau  
123 IG: urak eta pasa dituk?  
124 A: bai  
125 IG: (( ))  
126 A: orain ikusiko diu non dauzkaken ta / benga  
127 IG: benga / berrogeitahamar litro  
128 A: aupa / suabe / apa:!  
129 IG: ie: (barre)  
130 A: ikustek hi! / hemen sasoia dakanak hi  
131 IG: hi aitzak jota jota / hemen ia / esnia o mamia ein ze ezberditansun zeudek / bat behi  
132 esniakin ezta? / iogurra  
133 A: e: iogurra behi esniakin ta fermento laktikoakin // eta / mamia [ardi esneakin  
134 IG: ardi esneakin]  
135 A: bai  
136 IG: ta gero gatzatua o?  
137 A: gazta gatzatuakin gogortzeko // gogortzeko // ta hori izango huke alde / alde  
138 inportanteena  
139 IG: sei bat ordu ezta?  
140 A: bai  
141 IG: dana eiten / ta bota deun marmitaka horrekin  
142 A: bai  
143 IG: zenbat ateratzen dituk? / zenbat potoka? // eh zenbat potoka ateratzen?  
144 A: beste bat e bota behar dik // hoi dek oain teknika gehiao hartu diu  
145 IG: alegia larogehi bat litrokin  
146 A: bai / larogehi / gero beste bat ere bazeok  
147 IG: mila poto  
148 A: horrekin bai bai mila poto ateako zintuzke gutxi gora behera  
149 (moztuta edizioa)

150 IG(off): naturala dioen etiketa jarrita saltzen ditu jota jotak iogurrak et mamiak / nik  
 151 oraintxe eztaikit zer den naturala eta zer industrialak // baina Balerdi iogurrak ekoizten  
 152 dituen esnezalea ondo naturala dela eztago zalantzarik  
 153 IG: jota jota enkargau gogorra dek o?  
 154 A: bai: hemen atzean daon honek / ba:i  
 155 IG: enkargatu gogorra eh  
 156 A: bai kontrola zorrotza zakak bai  
 157 IG: hori  
 158 A: hauek atzen jartzen dituk ta: erabat nola egin behar dan eh:  
 159 IG: ikustetena dek / berua datorrela eh  
 160 A: bai  
 161 IG: iogurra bero berua  
 162 A: bai bai bai / etorri behar dik // hotxe berrogeita:::hiru lau gradu hortan // bi hiru lau //  
 163 banaka banaka ateratzen dituk  
 164 IG: ta geo hau errepartorako pronto  
 165 A: ez / hau likido zeok / hau egingo diu armairun sartu ta lau ordu eukiko ditu  
 166 IG: bale  
 167 A: lau ordu / kuajatu arte // ta gero etzeok saltzeik / egin behar dik hoztu hiru graduarte /  
 168 ta orduan ya produktua preparatuta daukak  
 169 IG: bueno jota jota hau martxan zioke  
 170 A: bai  
 171 IG: hemen gatzarie  
 172 A: gatzaria bai gatzatua  
 173 IG: bale / esnia nondik sartzen zaio?  
 174 A: esnia hemendik sartzen zaiok / [mangera horretatik taka  
 175 IG: mangera horretatik]  
 176 A: ta hemen (( )) botatzen zioke gatzatua eta etortzen da ya / preparatuta // listo  
 177 IG: oain zigilua jarri  
 178 A: bai / sellua jarri / fetxa jarri kaduzidadia / e:ta: / hori dek  
 179 IG: bueno ordun jota jota [kajak bete  
 180 A: kajak bete] ta alde egin behar diau itxi egingo zizkigukek eta  
 181 IG: benga  
 182 A: sartu  
 183 IG: repartora goaz / hauek esaten duten bezela / beheko zulo horretara /// Arribe / Ataio  
 184 ta abar

185 (moztuta edizioa)  
186 IG: egunon / sartzea bai? sartzea bai?  
187 B: bai bai bai  
188 IG: banatzailea aldatu (( )) deau  
189 B: a bai?  
190 IG: bai gauza berria / iogurzale berria eh  
191 B: ondo dao / ezta txarra aldaketa  
192 A: hobe (barre)  
193 IG: konforme al tzaudete o?  
194 B: ba:i  
195 IG: bai?  
196 A: zerbitzioakin  
197 IG: bale  
198 B: bai / ta ganera beti parre pixkat eginarazten digu oseake  
199 IG: bai?  
200 B: bai  
201 IG: ederki // asko saltzen al da o?  
202 B: bai / ongi saltzen da  
203 IG: jota jota errepartoa nun ibiltzen al zeate? / hemen Azkaraten hasi / ta etzekiat nundik  
204 nora saltzezueo o komertzio  
205 A: bai Azkarate / osea Azkaratetik hasi ta lehen esan dezun bezala zuloa zuloa ta gero  
206 IG: Ataio / Ataio / Arribe  
207 A: bai bai / Mari Teren dendan / gero Rosan dendara juango gatzik surtidoren / osea  
208 bertako lekutan ta gero Iruñaraino / ta Donostiaño / se acabo  
209 IG: denda txikitan ezta?  
210 A: bai bai denda txikitan / grandes superficies esaten dana ez  
211 (moztuta edizioa)  
212 IG: egunon  
213 A: egunon  
214 IG: eguerdi on o:  
215 A: bai / zoze esateatik ya garai hontan / ueno hemen gatzik  
216 IG: bueno oan bukatu ta ze plan daukak?  
217 A: oain bukatu ta pixkat gehiao  
218 IG: bazkaldu



219 A: ordubatak aldera bazkaldu eta gero arratsalden / lehen lan batzuk hasi dizkiau hor //

220 gutxi gora behera egin dizkiau

221 IG: etxekolanak ezta?

222 A: bai ta atsalden pixkat / betetzen /betetzen segiko diau eh

223 IG: mendin ta ibiltzen al haiz?

224 A: mendin?

225 IG: mendin ta etzekiat // mendiko lanetan / ganauakin ta holakoik ez ezta?

226 A: ez ez ez nik eztakat holan ganau asko / ikusi dituzuena lehen bezala ta ba: / ez gure

227 lehen alea gutxi gera behera / produktu batzuk ein / haiek saldu ta:

228 IG: oso ondo

229 A: etekin pixkat ateratzen baldin badu hortatik bizi naiz

230 IG: bueno jota jota pozen nauk // eskerrik asko

231 A: bai

232 IG: etorri ezkeroztik gauza bat esaten deu / hik ikusi al dek pelikula / nola da? / zazpi:

233 andregai zazpi anaientzat? / siete novias pa siete hermanos

234 A: bua

235 IG: eh

236 A: eztet ikusi pelikula

237 IG: ez? ba ikusten badek // (( )) hartuiak ba / hola izateituk ba eh: artzai amerikanok

238 holakoxea itxura

239 A: la hostia / modernizatuta eongo gaituk

240 IG: bizar rubio rubioakin ta eh:

241 A: bai bizarra / bakik bizarra:: ezteulako mozten

242 IG: hi ondo segi Mallua / Mallualde inguru hontan ta:

243 A: hemen segituko diau [lasai lasai

244 IG: eh] hori dek / oso ondo

245 A: benga

246 IG: bale eskerrik asko

247 A: bai / aio

**HP3: Enrike Etxeberria, Gorbeia azken artzainetako bat**

<https://www.youtube.com/watch?v=FmWSfCipBzs>

Ibon Gaztañazpi (IG) Zeanurira doa bertako azken artzainetako bati (A) elkarrizketa egitera. Baserrira iristean, artzaina eta bere emaztea (B) ageri dira sarreran. Hirurek batera apur bat hitz egin ondoren Gorbeia doa artzainaren korta ikustera.

1 IG: Arratiako txekorrak / nola bukatzen da esaera zaharra: / txikerrak baina gogorrak  
2 ezta / ba al dakizue nora noan gaur? / ba Arratia bailarara / hain zuzen ere / Zeanurira /  
3 Zeanira bertakoek dioten moduan / Enrike Etxeberría artzaina zain daukagu / txekorrik  
4 ez du / baina Gorbea azpiko larre zoragarrietan artaldeak bai / haren euskerea ta haren  
5 berbak entzuteko amorratzen nao  
6 (moztuta edizioa)  
7 IG: Enrike / egun on  
8 A: egun on  
9 IG: ze martxa?  
10 A: bueno / hemen nao / hemen gabiz hi ba ia / hemekoa in da gero ia Gorbealdera  
11 igoten dogun eh  
12 IG: eguraldi edarra dakau behintzat  
13 A: edarra edarra / hobea ezin lei  
14 IG: Lezartza baserria / ezta?  
15 A: bai  
16 IG: ederki / eguzkilore / dotore batez babestua  
17 A: bueno bai  
18 IG: urtero jartzen al dezue o?  
19 A: ez / urteak dekoz hemen ya eh / oin dala zenbat urte / bost edo sei edo zazpi edo  
20 IG: Maria Begoña egun on eh:  
21 B: bueno  
22 IG: ze zemoduz gea?  
23 B: elegante elegante  
24 IG: larogitahiru urte  
25 B: [larogitahiru  
26 A: larogitahiru]  
27 IG larogituhiru urte  
28 B: gerrea be ikusi giñun guk / gerrea be  
29 A: gerrea  
30 IG: gerra ebai eh  
31 B: bai  
32 IG: kontu kaskarra dia hoiek eh  
33 B: (( )) txarto / txarto ibili giñan  
34 IG: earki

35 A: lehengo bizi / lehenengo bizi  
36 IG: orduan gerra baina han hemen bazpako pakia daukazue hemen  
37 B: hemen bake itzela bai / bakea / bakea / ta bizie / horixe eskatuten gindun aldi baten  
38 gerra denporan bai  
39 IG: ardik ikustera goazi gora  
40 B: bai klaro ardiek ikusten  
41 IG: zemoduzko artaldea daka?  
42 B: hara han hango (( )) zati batzuk ta hemen este zati batzuk  
43 IG: bai  
44 B: leku leku askotan honek (( )) / hori leku askotan dabiz  
45 IG: oso ondo  
46 B: bai honek bai  
47 IG: earki ba  
48 B: hombre  
49 IG: bueno ba egun ona pasa eh  
50 B: bai igual  
51 IG: holaxe segi denbora askuan  
52 B: hori hori bai  
53 IG: eh holako umoriakin  
54 B: bai (barre) / ezta izengo fazil luzaro biziten  
55 IG: bueno hori ezta jakiten  
56 B: fazil ezta izengo  
57 IG: hori bueno  
58 B: asko gure edadeko asko joan dire / asko  
59 IG: bueno baino juan danok juango gea  
60 B: bai  
61 A: hori hori  
62 IG: lehentxio o beranduxeao baino danok juango gea ta  
63 B: bai danak  
64 A: eroan egingosku  
65 IG: eroan lehentxio o beranduxeo / baina inork ezta eskaporik hortik eh / hortik eztao  
66 eskaporik  
67 A: (( )) hor dao / danak pasa behar deure  
68 B: eztao eskaporik  
69 IG: bueno Enrike / ikusiko al deu atzeko korta o

70 A: bale  
71 IG: gero goraldea juango al gea eh  
72 A: goazen  
73 IG: oso ondo /// bueno Maria Begoña / ondo segi eh  
74 B: bueno bai bueno / bai  
75 (moztuta edizioa)  
76 IG: ofiziyua / artzai ofiziyua / noiz ikasi zenun nola ikasi zenun? / Enrike  
77 A: bueno ba nik ikisi nuan ba:: aitegaz / aiteaz hamalau urtearte ibili nintzen ta: / ba  
78 orduen eskolan ibilten zan ta hemen barrioko eskolara / ta hamalau urteaz itzi ta gero ya  
79 joa nintzen Gorbeia  
80 IG: artzai  
81 A: ba ba bai  
82 IG: eta zu goran eote al tzea? / edo beheran ta gora  
83 A: bueno ni nabil neguan ibilten nazi gon ta:: / gozean igoten badot ba iguerdikoan edo  
84 arratsalde jatsi  
85 IG: eta udaran?  
86 A: udan be / udan eon naz hilabetean goien  
87 (moztuta edizioa)  
88 A: etzan etzan! / e:tzan:! / (( )) eztu entzuten eta? / etzon: etzon:! / etzon hor! /etzon hai!  
89 /// horrego  
90 IG: ze Enrike /// azkar asko egin ditu lanak eh  
91 A: bai bai bai / horrek gu baino agilago daola eh  
92 IG: ondo obeditze al dizu txakurrak?  
93 A: ba ba bai  
94 IG: zenbat urte ditu?  
95 A: ba lau bost urte  
96 IG: hori erraminta earra lanerako eh  
97 A: bai hori bai /// hori barik ezin lei banakako ((( )) egin ondo eh  
98 IG: zuek / zuentzako txakurra da / zuen::  
99 A: bai txakurra da gure::  
100 IG: zuen erraminta ezta?  
101 A: hori / erraminta edo (( )) edo (( ))  
102 (moztuta edizioa)  
103 A: areu!  
104 IG: ze Enrike!

105 A: hara!  
 106 IG: bueno ze juango gea goraldera edo:  
 107 A: bai  
 108 IG: gurdi zahar edarra dakazu  
 109 A: gurdi zaharra baina ba badabil eh  
 110 IG: ederki / hik badakik ze teoria daukaten / Euskal Herrin eztaola itxurazko / artzainik /  
 111 o baserririk / Land Roverrik gabe  
 112 A: (barre) gaur gehienak deko // holao trasto zaharrak  
 113 IG: gogorrek eh  
 114 A: oandik gogorraok bai eh / honek urte asko deko honek  
 115 IG: ederki / bueno atzen sartuko naiz eh:  
 116 A: bale / bale  
 117 IG: zenbat artzai geratze zarete / eh:: / hemen Gorbeako inguru hontan / Arratiako  
 118 inguru hontan?  
 119 A: bueno eh ba hemen ya asko ez gaoz eh / hemen konteuk gara ya eh / zenbet eongo  
 120 gara guztire /// gitxi / hona erdia probetxu daukozenak badaoz baina // honan da  
 121 txabolan ta gordetan eoteko: / ba ezebez hemen nao neu bakarrik /// aurten / bueno  
 122 aurten ta urterokoak / astea egiten / hemen Gorbei guztien /// nao hemen alderdien ta  
 123 gero Orozko partean beste bat eongo da: / besterik eztao  
 124 IG: hiru lau artzain?  
 125 A: bueno:!! /// bai bai hiru lau hiru lau holan  
 126 IG: garai baten zenbat ezagutu zenitun?  
 127 A: ba: ba garai baten asko // bueno: / garai baten / hemen eon ziran /// eh: entre Orozko  
 128 ta Zeanuri ta Ubidea ta arabarrak bebai / ezta ba: / berrogei o gehao igual bai eh  
 129 IG (off): hamabost orduko abiadura pasa gabe igo gara Pagomakurretik gora Enrikeren  
 130 txabolara // edo hobeto esanda Enrikeren gaztelura eta bere erresumara // hogeitabat  
 131 garren menedan presaka eta estresatuta bizi garela? // ez behintzat Arratiako lur puxka  
 132 honetan  
 133 (moztuta edizioa)  
 134 IG: Enrike!  
 135 A: aber  
 136 IG: hau da parajea hau  
 137 A: paraje sanoa  
 138 IG: eh  
 139 A: sanoa da

140 IG: danak ikusten dia gaur eguraldi garbia ezto baina  
 141 A: ez / garbio egon balitz hobeto ikusiko zan baina / dao apur bat laino dao handik  
 142 IG: lainoa ta esan didazu gaur gauean trumoiak joko daola ezta?  
 143 A: bai / gaba dator trumoi handik eskumatik ikusten dozu oin agertukeran // hori euri  
 144 lainoa dator eh: trumoi  
 145 IG: zuek hemen non beste denbora / meterologia be / eguraldiari ta:  
 146 A: apur bat badakit / apur bat arrez / baina apur bat igerten dou ez / beti ez baie  
 147 IG: eguraldi txarra den garaian / hemen euria ta / kaskabarra ta: elurra  
 148 A: bai danerik ikusi da eh /hemen inoz o: / neguan igual hemen lo iten parau / goizean  
 149 altxau ta eh: atea ezin / bueno guk zabaldu esaten dogu / zuk ireki esango dozu ez?  
 150 IG: iriki edo zabaldu berdin dao  
 151 A: edurra honapea  
 152 IG: bai eh?  
 153 A: Ezin indar egin ta hor ibili ta ezta zabaltzen eh  
 154 IG: ikusiko al deu o?  
 155 A: benga bai  
 156 IG: hotela ikusiko al deu  
 157 A: benga goazen  
 158 IG: Lur  
 159 A: etorri  
 160 IG: zer daukazu / giltzatuta?  
 161 A: bai  
 162 IG: bai ezta? / lapurrik ta ibiltzen al dia Enrike?  
 163 A: bai // inoz in dostie / in dostie // hau harrek in dostien // tak atera / apurtu / atera  
 164 IG: bai  
 165 A: han bestaldean besta bat  
 166 IG: leihua  
 167 A: leihoa  
 168 IG: bai eh  
 169 A: labiek eroan zoztien ta ba: / telebisio zahar bat euki nuan / ezoan balio baina eroan  
 170 eubean // ze  
 171 IG: ta hemendik behera telebisioa jeisten bakarrik lantegi ederra hartu zuen  
 172 A: bueno ekarriko euen eh / beikulon bat /// bueno::  
 173 IG: aurrea  
 174 A: barrura

175 (moztuta edizioa)  
176 IG: Enrike baserritan ta grabatzera juten garen bakoitzen beti beti zerbait ateratzen  
177 digue // ohitura da  
178 A: eske behar da apur bat  
179 IG: kanpotik datorrenai // beti zerbait ematen digue  
180 A: hori hori hori behar da ze askok egiten dauena / ze kasurik bez  
181 IG: itxura  
182 A: itxura txarra da hori  
183 IG: kanpotik datorrena hartzeko  
184 A: apur bat errezibimentua egin behar da pertsonari  
185 IG: Enrike hemen txakurra bakarrik ez / beste lagun bat badakazu hor  
186 A: hori txakurra ona da / baina hori bere laguntzaile ona da eh  
187 IG: irratia ezta?  
188 A: ze horrek ipinten dozu musika ta / ta bueno jo ta (( )) hor // horreaz alegrau iten zara /  
189 hemen bakarrik triste triste ta barbarik egin barik inogaz ta horregaz  
190 IG: musika eukitze al dezu?  
191 A: musikia / bua: a tope  
192 IG: bai?  
193 A: radio Arrate / diario  
194 IG: Arrate eukitzezu?  
195 A: bai  
196 IG: Bernardo ta konpañia  
197 A: hori Bernardo ta: bo:  
198 IG: hor bai trikitixak mejikanak ta [dan  
199 A: danerik] eh: neri asko gustaten iata hori eh / Arrate / bo:  
200 IG: bueno Enrike ba ezerrez eskerrik asko  
201 A: bueno eztao zegaitik  
202 IG: topa  
203 A: ta hurrengoan ekarri asko  
204 IG: ederki / ta holaxe segi dezagula urte askoan  
205 A: bardin  
206 (moztuta edizioa)  
207 IG (off): ta halako ikuskizunaren aurrean nik zer nahi duzue ba esatea / ba hitzak  
208 alperrik daudenean hobea dela isil isilik geratzea eta Dilanek abestu bezala / haizeari

209 erantzunak eskatzea // eztakit nik jainkorik baden o ez den baina baldin bada hemen  
210 nonbaiten behar du

**AZP1: Euskararen osasunari nota jarri diogu Azpimarran**

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/azpimarra/bideoak/osoa/4207728/bideoa-euskararen-osasunari-nota-jarri-diogu-azpimarran/>

Maddalen Iriartek (MI) Paul Bilbao (A) Kontseiluko kidea elkarrizketatzen du, euskararen osasun eta egoeraren gaineko galderak eginez.

1. zatia: 0:00 – 4:25
2. zatia: 7:28 – 9:48
3. zatia: 14:28 – 17:16

- 1 MI: kurtsoaren amaieran gaude ta ez dakit euskararen osasuna edo euskararen egoera /
- 2 eh kurtsoa neurtu daitekeen baina kurtsoa neurtzen ditugu hainbat gauza / eta
- 3 kurtsoa jartzen diogu nota gure ikasleei / eta kurtsoa egiten dira hainbat gauza / eta
- 4 guk euskaraz egunero egin dugun Azpimarra honetan / euskarari berari ere tarte ugari
- 5 egin diogu eta ikuspuntu ezberdinetatik azterketa ezberdinak / ikerketa ezberdinak /
- 6 zuen etxeraino ekarri nahi izan ditugu eta azken egun honetan ere / nolabaiteko
- 7 hausnarketa egin nahi izan dugu hizkuntza honen inguruan / eta e:uskararen ibai zabal
- 8 honetara biltzen diren gai guzti hauei buruz hitz egiteko ba kontseiluko idazkari nagusia
- 9 / Paul Bilbao // ekarri dugu
- 10 A: arratsalde on Maialen
- 11 MI: Bilbao jauna arratsalde on / konturatu zera Bilbao esan detela
- 12 A: bai bai bai ta eskertzekoa da / eskertzekoa da noiztik behin gogoratzea
- 13 MI: ibaiarena ere aipatu dudala
- 14 A: bai bai baina modu sinbolikoan
- 15 MI: baina ya modu [sinbolikoan
- 16 A: metaforikoan]
- 17 MI: sinboliko eta metaforikoan izan dela eta behingoz zure izena oso ongi esan dudala
- 18 A: ederto
- 19 MI: milesker gurekin izateagatik ta arratsalde on
- 20 A: plazera da
- 21 MI: esan dut eh / ez dakidala kurtso amaiera // momentu egokia dan / bada nolabait hola
- 22 balantze txikiak egiteko modukoa / lehengo batean unibertsitateko irakasleekin hizketan



23 ari nintzela eh:: // bueno / esan zuten beraien ustez datozen urteak gogorrak latzak  
24 izango direla euskararentzat /// horrela jaso nuen datua /// eh:: UEMAK hogeitabost urte  
25 egin dituela eta klusterrak egin duen ikerketan ikusi dugu / arnas guneetan behera egin  
26 duela / baina era berean ikusi dugu / herri erdaldunetan euskaldun gehiago dagoela /  
27 beraz hor ez dakit oreka non geratu dan // orduan badira sintoma ezberdinak / gauza  
28 ezberdinak / Nafarroara juango gera / juango gera beste leku batzuetara euskeraren  
29 egoera aztertzea baino zuk nola ikuste dezu botila momentu honetan bi mila ta  
30 hamaseiko uztaileen lehenengo honetan?

31 A: bai nik beti diñot / kontua dala botila hori bete bete egin behar dela / askotan denbora  
32 gehiegi ematen dugu ea botila erdi hutsirik edo erdi beterik dagoen eztabaidatzen ta nik  
33 uste kontua dala botila bete egin behar dela / ta klaro botila betetzeko hainbat modutara  
34 egin daiteke / tantaz tanta bete edo iturri baten azpian jarri eta benetan botila hori ahalik  
35 eta arinen bete /// aipatu dituzun bi elementuetan / egia da egia da nik uste dut  
36 badagoela kezka bi arnaguneetan / arnaguneak dira errealki euskaraz bizi diren  
37 guneak eta horiek nahita ezkoak dira hizkuntza baten berreskuratze prosezarako // eta  
38 hor egia da datuak kezkagarriak direla / gero eta erdaldunagoak direlako arnaguneak /  
39 eta bestea badaka bere alde positiboa / hirigune erdalduna gero eta euskaldunagoak  
40 direla / baina portzentajeei erreparatzen badiegu oraindik ez da

41 MI: ez da egoera orekatu bat beraz

42 A: ez / erdaldunegiak dira eta ba hor azkenean kopurutan / bueno kopuru majoak izan  
43 daitezke baina portzentajeetan ez hainbeste / orduan egia da hor ere euskal eledun  
44 gehiago behar da benetan euskaraz biziko diren pertsona hoiek / hautu hoiek  
45 askatasunez egingo badute

46 MI: em:: / bi mila eta hamaseigarreneko / Donostia bi mila eta hamaseigarreneko: eh: /  
47 ekitaldien barruan eta egingo diren ikerketa eta eskaintzen barruan hizkuntza  
48 eskubideak bermatzeko protokoloa lantzen ari zarete / protokolo hortan bada kontu bat  
49 irakurri dudana eta interesa ean didana eh:: / hizkuntzei buruzko legedien ezaugarri  
50 komun bat da hizkuntzak normalean gehiago lantzen direla ikuspuntu politiko batetik /  
51 hitzun guztien eskubideen errespetuaren ikuspegitik baino // hori da eh: / azpimarratu  
52 duzuen gauzetako bat eta jasotzen duen gauzetako bat eta / eh atenzioa eman dit

53 A: bai azken finean askotan ahaztu egiten dugu hizkuntzen artean hitzun / hizkuntzen  
54 atzean hitzunak daudela / hizkuntzak ez dira ezer / ez dira museoko pieza / hitzunak  
55 daude orduan eh: / hitzunez hitz egin behar dugu eta hitzunez hitz egiten dugunean hitz  
56 egin behar dugu hizkuntza eskubideez / askotan esaten da hizkuntza ez dela  
57 politikarekin nahastu behar / nik beti esan izan dut hizkuntza politika politika dela / gure

58 bizitzan dana da politika / baina beste kontu bat da non jartzen ditugun parametroetan  
59 eta horrexegatik proiektu honekin / hizkuntz eskubideak bermatzeko protokolo horrekin  
60 guk zentroan hiztunak jarriko ditugu / hiztunak modu indibidualean / baina hiztunak  
61 noski modu kolektiboan

62 MI: m:: / seguraski hiztunak modu kolektiboan / erdigune hortan jarriz / agian hiztunak  
63 beraiek agian gizartea bera izan daiteke neurri politiko gehiago eskatu ditzakeena: / eta:  
64 eta bueno ba:: / eh: hizkuntzaren inguruko erabakiak hartzen dituztenei eskaera  
65 handiagoa egingo dietena? / izan daiteke honelakoren bat?

66 (2. zatia)

67 MI: bueno lehendakariari dagokionez oraindik ez ditu danak ezagutzen baina /  
68 ezagutzen ditugun guztiak eh:: // elebidunak izango dira / bai Idoia Mendia / bai Iñigo  
69 Urkullu / bai eh: Arnaldo Otegi // eztakit zein izango dan Partido Popularrekoa / ez  
70 dakigu zein izango den Podemos eh: // ahal dugukoa / baina tira hoiek behintzat  
71 elebidunak ta gero ikusiko dugu zerrendak nola diren

72 A: bestea da praxia / ez da nahiko elebiduna izatea / ta gero azken finean askotan  
73 entzuten dugu ez / euskarari prestigioa eman behar zaiola // nola ematen zaio prestigioa?  
74 / ba kasu honetan / autonomia erkidegoko lehendakari batek euskara lehenesten duenean  
75 // orduan benetan herritarrek / herritar: xumeek ikusiko dugu euskarak baduela  
76 garrantzia / ez dela ornamentuz erabiltzen dugun zerbait / horrexegatik nik uste dut bai  
77 e:: / hautagaien hizkuntzari begira / bai eta erabilerari ere / euskarari lehentasuna ematea  
78 / eta abar ta abar / ta berriz ere lotsik gabe ta askotan agian erdaldunen elebakarra ohartu  
79 behar da zerbait galdu egiten duela / hori ere ez da txarra / hori ere bada modu bat / izan  
80 daiteke motibazio bat / pertsona bat euskarara ekartzeko / orduan eh:: // iruditzen zaigu  
81 bi elementu hoeiekin ta gero hirugarrena / euskarak ea zentralitatea hartzen duen  
82 kanpainan // hizkuntza politikak ea zentralitatea hartzen duen // nik badakat kezka /  
83 lehen esan didazu / ikasturte balorazio / nik badakat kezka euskara gero ta atzerago ari  
84 dela geratzen hainbat eztabaidatan ta horrek kezkatzen gaitu // azken finean

85 MI: adibidez ze eztabaidatan diozu?

86 A: bueno ba hor eh::

87 MI: estatuaren ingurukoetan::

88 A: estatuaren ingurukoetan: / etabar etabar / badirudi orain euskararen gaia m::

89 MI: beraz esaten denean / euskalduna izango da edo ez da izango // ta ba bai izan  
90 daiteke eta honelako [premisak egiten direnean

91 A: klaro edo itxaron] behardugu ez dakit ze / ze ze puntu heldu arte / eta orduan ekingo  
92 diogu gure herriaren berresku / berreuskalduntzeari / bueno ni orain dela gutxi

93 Holandan egon naiz / eta hango eragileek esan zidaten / beraiek orain dela ehun urte  
94 beraien independentzia eskuratu zuten ta momentu horretan bertan hizkuntza zainketa  
95 berezirako gelara sartu zuten / eta ehun urte darama zainketa bereziko gelan / orduan  
96 iruditzen zait gai hoiak ere jarri behar direla erdigunean / gainera askota lotzen dalako  
97 ikuspegi identitario etabar etabar / ez ez nik hizkuntzaz hitz egiten dudanean / (( ))  
98 eskubideez ari naiz / justizia sozialaz ari naiz / alegia bestelako gizarte eredu bat eraiki  
99 behar badugu / hortaz hizkuntz eskubideek zentralitatea hartu behar dute / enago  
100 bakarrik identitatea / halako elementuez / beste hoiak ere kokatu behar dira / benetan  
101 gizarte eredu berri bat eraikiko badugu

102 (3. zatia)

103 MI: zer egin behar dezu udaran / Paul Bilbao?

104 A: ba udaran eh: / ba hurrengo hilabete osoa protokoloarekin esan bezala eh: /  
105 ekarpenak jaso eta jaso egiten ari gara eta gu prest utzi behar dugu batzorde zientifikoari  
106 bidaltzeko / eta bueno abuztuan espero dezagun oporraldia hartzea eta toki lasai batera  
107 joatea

108 MI: lasai lasai zauden bitartean / erronka berriak buruan eraiki ibiliko dituzun /  
109 aldundiaren euskalduntzea: / beste zenbait kontu ere bai: / azpimarratu dizkidazu  
110 nagusienak

111 A: bueno ba nik uste hurrengo: hurrengo ikasturtean erronka nagusienak eako  
112 auteskundeak izango direla eta / gu ya lanean hasiko gara / alderdiko / alderdiekin  
113 etabar lehen aipatu ditugun kontuengatik // lan mundua euskalduntzeari begira hor  
114 badaukagu euskaragileak / enpresa euskaldun hoiak batzordea / hor ere urrats batzuk  
115 egingo ditugu / saiatzen ari gara sindikalgintzarekin ere esperientzia pilatuka adierazten  
116 // eh: eremu sozioekonomiko askotan ahaztu egiten dugulako ta gure bztzaren zatirik  
117 handiena / lanean edo besteen lanak hartzen edo jasotzen dugulako / orduan pues hor  
118 badaukagu eh:

119 MI: ta hor oso harreman handia:: eh:: / sortzen delako

120 A: bai bai bai bai sortzen dugu langile bezala / [kontsumitzaile bezala

121 MI: kontsumitzaile bezala]

122 A: gehiago subjektu ezberdinak bezala

123 MI: hau da erosketak egitera joaten geranean

124 A: esaterako

125 MI: ta kajatik pasatzen geranean euskaraz hitz egitea

126 A: edo kafe bat hartzen dugunean

127 MI: edo kafe bat hartzen dugunean

128 (barre)  
129 MI: behin hartu nuen bat eta:  
130 A: horrexegatik horrexegatik diñot  
131 (barre)  
132 A: eta bueno hor daude erronka nagusiak gehi esandakoa / ba auteskundeak ere  
133 baditugu / Nafarroan ere iruditzen zaigu jarraitu behar dugula eragiten / eh hurrengo  
134 urtean berriz ere matrikulazio kanpaina egongo da / lortu behar dugu legeak ezarri zuen  
135 eremu ez euskaldun horretan / harik eta ume gehien matrikulatzea euskarazko  
136 ereductara / alegia lanik ez zaigu falta ta bueno horretarako indarra hartu behar da ta  
137 ezpada udan pare bat aste gitxienik / lasai hartu eta indarberritu  
138 MI: ezinbestekoa da Paul Bilbao / ezinbestekoa / ez dago / behar beharrezkoa da  
139 A: oinarrizko eskubidea ere bada  
140 MI: oinarrizko eskubidea ere bada dudarik gabe ta gainera tarteka azpimarrara etorri  
141 beharko da  
142 A: ta plazer handiz / ta gainera ohorea azken saiora etortzea  
143 MI: ba asko pozten gara // ba badakizu udako:: / abestiez ari garela apur bat uda giroa  
144 eman nahian gure saioari / zuk ze aukeratuko zenuke?  
145 A: ba gaur eh: asteburua dela kontuan hartuta / San Pedron ta hainbat tokitan erromeriak  
146 / ba orain dela urte asko ni gazteagoa nintzenean / hor eh modan egon zan udan ez dot  
147 gogoratzen ondo / nik emostaizuz musutxuek zan o eztot gogoratzen abestiaren zera  
148 zein zan Gozategina / bueno ba horrek oso oroitzapen onak ekartzen dizkidala jaigiroa /  
149 uda / ba agian hori egin beharko [dugu hurrengo asteetan  
150 MI: badakizu zenbat urte dituen kantak?  
151 A: hogeit bat bai  
152 MI: ze gazte ta ze guapo ginen / orduan ere / [orduan ere  
153 A: orduan ere] horixe / orduan ere  
154 MI: Paul Bilbao / asko estimatzen dizut azken saio honetara etorri izana: / hausnarketa  
155 hauek gure mahai gainera ekarri izana:: // premiazkoak direlako / behar beharrezkoak  
156 direlako etorri berriz  
157 A: plazera izango da  
158 MI: eta zuretzako bi musutxu eta musutxuek uda guztirako  
159 A: esker mila

**AZP2: Arnaldo Otegi ‘Azpimarra+’ saioan egindako elkarrizketa**

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/azpimarra/bideoak/osoak/3999830/bideoa-arnaldo-otegiri-azpimarra-saioan-egindako-elkarrizketa/>

Maddalen Iriartek (MI) Sortuko kidea den Arnaldo Otegi (A) politikaria elkarrizketatzen du, Euskal Herriaren egoera politikoari buruzko galderak eginez.

1. zatia: 0:00 – 4:10
2. zatia: 25:10 – 29:44
3. zatia: 50:50 – 52:19

- 1 MI: esan bezala Arnaldo Otegi dagoeneko Azpimarraren sofa gorrian jesarrita / Arnaldo
- 2 Otegi / gabon eta milesker Azpimarrara etortzeagatik
- 3 A: zuei gonbidapena egiteagatik
- 4 MI: eh:: pentsatzen hasita / zail egiten zitzaidan pentsatzea Azpimarran / hainbeste
- 5 Azpimarra egin ditugun Azpimarra honetan etzarella sekula egon / baina errealitatea
- 6 horrelaxe da / sei urte terdi eta gero ba hor daukagu lehenengoa
- 7 A: espirituan egon naiz / kartzelatik ikusten nun beraz ispirituan egon naiz
- 8 MI: ispirituan egon zara
- 9 A: bai
- 10 IM: Arnaldo Otegi / politikari bezala sartu zinen / sartu zintuzten gartzelara eta
- 11 Logroñoko kartzelatik atera eta Elgoibarren atera berehala esan zenuen politikari bezela
- 12 irten zinela gartzelatik / ez dakit edozein kasutan / urte hauetan guztietan eh: /
- 13 konbintzimendu guztiak / zure hausnarketa guztiak berean mantendu diren
- 14 A: bai bueno beti:: egiten dituzu eboluzioak eta aldaketak ez / eta normala da / niri
- 15 beldurra ematen didate:: hainbat jende: sekulan zalantzarik ez dutenak gehien ematen
- 16 dute beldurra ez/ baina esan dezaket eta esaten nuen / ta horrela aipatu atera nintzen ez /
- 17 ni euskaldun bezela sartu ninduten / euskaldun bezela atera naiz // independentista sutsu
- 18 bezela sartu ninduten ta independentistagoa atera naiz // ezkerreko bezela / sartu
- 19 ninduten / ta ezkerretik eh:/ ta ezkerreko bezela atera naiz / ta beraz nire
- 20 konbentzimenduak / esan dezagun ba bultzada bat euki dutela barruan ez?/ norbaitzuk
- 21 pentsatzen baldin bazuten kartzelak bigundu:: egingo zituztela nire pentsamoldeak eta
- 22 nire printzipioak / ba guztiz alderantzizkoa izan da
- 23 MI: eta kartzelara sartu zintuztenean zeneukan alaba txiki bat hamabi hamahiru urte
- 24 bueltan zituena / seme gazte bat / orain ere gaztea dena
- 25 A: bai

26 IM: baina gaztea  
27 A: bai  
28 IM: zeneukan ama bizirik  
29 A: bai  
30 IM: amaginarreba bizirik  
31 A: bai  
32 IM: eta sei urtez hau guztia sostengatu duen bikote bat ere izan duzu  
33 A: bai  
34 IM: baduzu / eta eztaikit honek pertsonalki ze nolako aldaketa sortzen duen  
35 A: betidanik: / beitu eh:: /// asko irakurri dut kartzelan eta: hainbat politikarien biografia  
36 irakurtzen duzunean / beti egia da mundu guztiak botatzen duela faltan familiari sort /  
37 eta sor zaizkion denborak ez / eta guri gertatu zaigu / ta niri azkenean hamalau urte  
38 pasatu ditut kartzelan / eta:: / beti esan dut batzutan omenaldiak guri egiten dizkigutela  
39 baina benetako omenaldia / gure familiak merezi dutela ez / eta egia da bizitza pasatzen  
40 dela: / nik hamalau urte / bizitza horren hamalau urteak barruan pasatu ditut / baina  
41 bueno ni beti izan naiz baikorra / beti saiatu naiz gauzak irribarre batekin begiratzen  
42 eta:: nik konfesatu behar dut / familia handi bat daukatela / eta beraiei esker naizela  
43 naizena ez  
44 MI: kartzelatik atera eta Elgoibarren: jendeurrean aritu zinen hartan esan zenuen /  
45 komentatu zizutela / bueno gauzak apaldu ote ziren // baina etzeniola pinta hartzen /  
46 egunak pasa ahala iruditzen zaizu komentatu zizuten hura egia dala / gauzak apur bat  
47 apaldu egin direla Euskal Herrian / gauzak aldatu egin direla Euskal Herrian  
48 A: nik esango nuke / animo estado bat badaola ez / nahiko orokorra hartuta // eta:  
49 animo estado horrek / ba:: apaldurako itxura ematen duela ez // baina nik ez dut sinisten  
50 herri honetan // askatasunaren egarriak ito direnik // ez dut sinisten herri honetan ez  
51 daudela indar et energia nahikorik gizarte edo jendarte aurreratu bat eraikitzeke eta  
52 berdintasunean oinarrituta:: eraikitzeke // nik uste dut behar dela: / bidea eman  
53 sentimendu guzti hoiei eta nahi guzti hoiei / eta nik uste dut eh:: / herri honek behar dula  
54 // zintzoki egin erreflexio sakon bat / herri honek behar du ispiluaren aurrean jarri //  
55 herri honek azterketa zorrotz bat behar du / eta: herri honek behar du baikortasunez  
56 begiratzea etorkizuna / eta nik uste dut hori egiten baldin badugu eta jendeari erakusten  
57 badiogu bide eraginkor bat eta egingarri bat // piztuko dela energia / herri honek ez du  
58 galdu bere autokontzientzia / eta herri honek beti jakin izan du egoera zailetatik  
59 ateratzen eta aterako dela oraingoan ere  
60 (2. zatia)

61 MI: krisi ekonomikoa oso larria izan da / Euskal Herriko milaka gizon emakumek  
62 pairatu dute / ta zuk onartzen duzu / ez duzuela jaki horri erantzun bat ematen /// eh:  
63 batzuk diote / pixkanaka pixkanaka hortik ateratzen ari garela / baina beste iritzi batzuk  
64 diote atzeraldi berri baten aurrean egon gaitezke  
65 A: hori da  
66 MI: eta kontua da / egon ba / egon baldin bagaitezke ezker abertzaleak ze proposamen  
67 egiten du / orain bai orain eh:: /// konturatuta aurrekoan ez duela nahikoa egin / krisi  
68 ekonomiko baten aurretik ateratzeko  
69 A: nik uste dut guk arazo bat euki genuela bere garaian / eta arazoa izan zen guk agenda  
70 bat geneukala / gatazka gainditzeko // gure lehentasuna zela gatazkaren ondorioak  
71 gainditzea baina bide erdian krisi ekonomikoa sartu zen /// eta orduan jendearen eta  
72 jendartearen lehentasunak aldatu egin ziren / baina guk jarraitu genuen gure agendarekin  
73 eta beraz guk geneukan agenda bat / baina herriak beste agenda bat zeukan eta herri hau  
74 aldatu nahi dugunak agenda herriarekin egin behar dugu / herriarekin batera / ta beraz  
75 nik uste hor akatsa  
76 IM: instituzioetan eta instituzioetatik kanpo  
77 A: hori da / akatsa egin genuen // bigarrenik / instituzioetan / eh:: gauza kurioso bat  
78 gertatu zitzaigun / ezker abertzalea historikoki adibidez egon da instituzioekiko  
79 nolabaiteko distantzia markatzen // eta justuki jendea hasi zanean instituzioetatik  
80 nolabait ere mesfidantza bat hedatzen jendearen artean / guri tokatu zitzaigun kudeaketa  
81 izugarria egiteko aukera bat eta botere instituzional izugarria / eta nolabait ere  
82 kontrajarriko bidea eh egin dugu / eta horretan beste gauza batean tronpatu ginela uste  
83 dut / eta da jendeari esan behar zaio / europar batasunean kapitalismoan eh:: / estado  
84 españolean / eh: instituzioek badutela margen murrizta gauzak aldatzeko / eta nik beti  
85 jartzen dut Roosevelten adibide bat / sindikatoekin biltzen zenean / Rooseveltek beti  
86 esaten zun / ados nago zuekin / orain atera kanpora ta behartu hori egitera / zergatik  
87 bestela nik ezin dut egin / hortan nik uste dut ere // eh: ez dugula ongi neurtu hori ez /  
88 ordun krisi ekonomikoaren inguruan  
89 MI: ez duzuela ongi neurtu / sindikatuiekiko harremana / sindikatuekin [ (( ))] behar zena  
90 A: esan nahi dut / uste izan dugula / eta baita ere uste dut eh: / badaudela sektoreak  
91 Euskal Herrian bueno munduan zehar ere / baina Euskal Herrian ere / uste dutenak  
92 instituzioak atajo bat direnak / hau da zuk herrian lortu ez duzuna instituzioetatik egin  
93 daitezke / badakazu boletin ofizial bat eta esaten duzu / orain eh: zaborrak bilduko dira  
94 horrela / baina horrek ez du horrela funtzionatzen // horrek funtzionatzen du aldrebes //  
95 jendea kontzientziatzen denean eta urratsak ematen duenean eta printzipioak aldatzen

96 duenean / zu posible duzu hori egitea instituzioetan / instituzioetan hori bakarrik egiten  
 97 baduzu / tronpatuko zea ta tronpatu ginen / krisi ekonomikoarekin gauza bera gertatzen  
 98 da // bueno nik entzun det adibidez EAJko Urkullu lehendakaria esatea bere  
 99 programaren ehuneko laurogeitahamarra kunplitu dutela / ongi / oso ongi / beraz  
 100 programa horrek ez du balio / zeren eta hemen prekarietateak jarraitzen du / hemen  
 101 langabeziak jarraitzen du / ta zuk dakazu programa bat ez dut esango ehunetik ehunean  
 102 ez duela funtzionatzen / baina estrategikoki edo estrukturaliki funtzionatzen ez duena /  
 103 ordun jendeari esan behar zaiona da egia ta esan behar zaiona da / hamen estafa handi  
 104 bat egon da hemen krisi oso teledirigitua egon da / hemen krisitik batzuk aberatsago  
 105 atera dira / hemen krisitik lan baldintzak askoz mugatuagoak dira / hemen prekarietatea  
 106 askoz ere handiagoa da / hemen esaten da orain aterako garaela mirari batekin / eta  
 107 indikadore ekonomikoek munduan esaten dutena da agian / agian ez gaudela krisitik  
 108 ateratzen baizik eta krisi berri bat etorriko dela / zein da gure arazoa / bueno ezta gure  
 109 arazoa / beti esaten digutena / zuek bakarrik albiste txarrak ematen dituzue / ta hori da /  
 110 orain komunikatzai komunikadoreak oso modan daudenez esaten dute / zuk ezin duzu  
 111 bakarrik eh:: albiste txarrak eman  
 112 MI: bueno txarrak ez baina beste era batera  
 113 A: nik egia esango det / pentsatzen dudana / sentitzen dut / nik ez dut gezurrik esango  
 114 MI: edozein kasutan  
 115 A: nik uste dut krisi poli ekonomiko berri baten atarian egon gaitzekela eta beraz /  
 116 lehenengotik oso gaizki atera gera / ba eske bigarrenetik gaizki aterako gara / ta horri  
 117 gehitzen baldin badiogu momentu honetan / kapitalismoak eta egungo sistemak ez duela  
 118 bakarrik bizi baldintzak laboralak ekonomikoak eta arriskuan jartzen / eske planetaren  
 119 bizitza eta gure giza espeziearen bizitza arriskuan jartzen duenean / ba jendeari esan  
 120 behar zaio / aizu / ni gauza / guk gauzak honela ikusten ditugu / zerbait egin behar degu  
 121 (3. zatia)  
 122 MI: irribarre egiteko aldarrikapena egin duzu sarri  
 123 A: bai beti  
 124 IM: urte hauetan guztietan / borrokaren aldagarria ere erantsi diozu azkenekotan /  
 125 edozein kasutan irribarrearen ri egin nahi diot azpimarra eh:: / uste dezulako irribarrez  
 126 egin behar dela hau  
 127 A: hombre  
 128 MI: amable  
 129 A: bai  
 130 IM: atsegin



131 A: bai bai / nik uste dut hemen jendea seduzitu behar da / osea jendeari ezin zaio esan  
 132 zer egin behar dun / seduzitu behar da eta horretarako argudioak eman behar dira eta  
 133 horretarako konbentzitu behar da jendea /// ta: m: nik // konbentzimendu bat dakat ta da  
 134 guk daukagula herri honetan alternatibarik hoberena // guretzat horrela da / eh: gero  
 135 jende askok ez digu arrazoia ematen hori ere egia da / baina guk uste dugu badaukagula  
 136 alternatiba bat ta amabilidade osoz planteatu behar dela / irribarre batekin / ez da ezer  
 137 gertatzen / jendea gu bezela pentsatzen ez duena // eh: badago eh: konbentzitu behar da /  
 138 eta neretzat da lan apasionantea eta polita eta nik uste dut probokazio guztien gaintik /  
 139 errepresio guztien gaintik irribarre egin behar dela // lana egin behar dela / eta horrela  
 140 agian egunen batean irabaziko dugula / ni konbentzitura nago lortuko dugula estatu bat  
 141 izatea  
 142 MI: zuk esan zenuen: / orain dela: / egun gutxi / zuk uste dezula / zuk ikusiko duzula  
 143 Euskal Herria askatuta  
 144 A: a bai ni konbentzitura nago ikusiko dudala bai bai  
 145 MI: Arnaldo Otegi espero det hemendikan aurrera sarri ikusiko dugula elkar / izan  
 146 eztabaida:: hauteskunde eztabaidatan / izan beste: era honetako elkarrizketatan /  
 147 milesker gabon gurekin iza::  
 148 A: bai zuei gonbidatzeagatik milesker  
 149 MI: estimatzen dizut benetan  
 150 A: bai

**AZP3: Azpimarra saioan elkarrizketa Elena Lakari**

<https://www.youtube.com/watch?v=-RoNPpr67E4>

Maddalen Iriarte (MI) eta Asier Odriozolak (AO) Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariari, Elena Lakari (A) egindako elkarrizketa da, honetan euskararen egoeraz, euskarak gizartean duen balioaz eta norbanakoen erantzukizunez dihardute.

1. zatia: 0:00 – 2:22
2. zatia: 6:08 – 9:00
3. zatia: 13:15 – 15:42

- 1 MI: gaur saioa hasi dugunean esan dugu buelta eman orduko: hauteskundeak agertuko
- 2 zitzaizkigula eta: [berriz ere
- 3 AO: berriz ere hemen dira]
- 4 MI: nolabait / badira

5 AO: gure ahotan  
6 MI: gure ahotan / Elena Laka // arratsalde on ta ongi etorri  
7 A: kaixo arratsalde on [ta eskerrik asko  
8 MI: ongi etorri berriz ere]  
9 A: ta nolabait eh: / nola bait  
10 MI: nolabait bai nola bait  
11 A: (( )) hauteskunde kontuak  
12 MI: euskaltzaleen topaguneko presidentea: zara / azpimarra utzi zenunetik (barre)  
13 A: bai emakumea / urtebete / urtebete honezkero  
14 MI: urtebete  
15 AO: hemengo promozioaren ondoren ta ondorioz  
16 MI: zer?  
17 AO: hemengo promozioaren ondoren eta ondorioz segurasko  
18 MI: ba: nik uste Elena: / Elena lehendik ere / hona etorri baino lehen ere:  
19 A: besteak beste  
20 MI: besteak beste bazeukala zer esan eta zer aportatu topagunean eh / esan dugu  
21 hauteskunde kanpaina:: aterako zitzaigula behin eta berriz / baina hauteskunde kanpaina  
22 hau martxan jarri baino aurretik ere // azken asteotan alderdi politikoen aldetik /  
23 euskararen eta hizkuntza politikaren gainean egondako adierazpenek nik uste kezka  
24 sortu dutela euskaltzaleen artean // eta pentsatzen dugu ba euskaltzaleen topaguneak ere  
25 nolabaiteko hausnarketa egiteko parada hartuko zuela hauen aurrean  
26 A: bai nik uste dut // bai eh:: euskaltzale bakoitzak eta gero euskalgintza mugimendu  
27 osoan / kezkaz eta penaz ikusi direla horrelako: // horrelako adierazpenak ezta // ze: nik  
28 uste dut / eh: hauteskunde garaia dalako / bueno oraindik ere kanpaina hasi barik zegoen  
29 horrelakoak egin zirenean / baina hauteskunde giro batean eginak daude / baina  
30 iruditzen zait alderdiei tokatzen zaiona dala beste proposamen eraikitzaile batzuk egin /  
31 beste modu positiboan eragin ez / eta ez aurreko guztia zapuztu modu negatiboan eta  
32 gainera gizartearen zati handi baten kontra berba egin ez / nik uste dut hori ez dala  
33 onargarria alderdiek egin behar duten lan batentzako / eta gainera ematen du / bueno ba  
34 esaten dituztenak ba onartuak direla baina ez da horrela / nik uste dut gizartearen zatirik  
35 handiena eh: euskaltzalea dala / euskararen alde dagoela / eta behintzat alde ez dagoena  
36 ez dago kontra / edo gizartearen oso zati txiki bat izan daiteke horrena ezta / ta orduan  
37 nik uste dut alderdiei beste gauza bat dagokiela / dagokiela planifikazio batzuk egitea /  
38 ta dagokiela pentsatzea ta ez esatea zer gertatuko den euskararekin herri honetan /  
39 hemendik epe luze batera non egongo garen eztaikit hemendik hogetahamar urtera /

40 baina baita ere zer gertatuko den hemendik bost / epe ertain labur batera / bost urtera bi  
41 urtera zer gertatuko da / eta:: / eta oraindik behintzat proposamen eraikitzaile horiek ez  
42 ditugu entzun  
43 (2. zatia)  
44 MI: eh: batez ere: / bueno / euskal: zale garenontzat eraso izan diren alderdiak edo  
45 erasoak jaurti dituzten alderdiak aipatu ditugu / baina begiratu diezaiegun pixkat bat  
46 alderdi politiko guztiei / oraintxe kanpaina hasteko gutxi falta den honetan zuk zer  
47 esango zenieke / bai batzueie / ta bai besteei ere / bai printzipioz euskara maite duten  
48 horiei ere?  
49 A: bueno ba joka dezatela arduraz / eta ez da beharrezkoa gainera maite izatea eh: / ni  
50 horretan ez naiz  
51 MI: ez baina batzuk esango lukete  
52 A: bai  
53 MI: maite dutela  
54 A: bai bai baina / ez tala // ez diogu exigitzen alderdi guztiei euskara maite izatea //  
55 batzuk maiteko dute beste batzuk ez / baina arduraz jokatu behar dutela jakina / eta  
56 plangintza bat egin behar dutela / eta pentsatu behar dutela gizarte honetan / eta herri  
57 honetan elkarrekin bizitzeko / ba beste elementu batzuk beharrezkoak diren moduan /  
58 euskera eta euskal:: / eh: euskaltzaleon eta euskaldunon eh:: / nahi horrek asetzea  
59 beharrezkoa dala bizikidetzarako / eta utzi dezatela euskera lehiatik kanpo / eta  
60 hauteskundeko joko eta lehia horretatik kanpo / ze ez dio inori mesederik egiten / esaten  
61 dut / eta beharbada eurok / baten batzuk beharbada / epe laburrean hortik mesede txiki  
62 bat atera ahal dute / baina gizarteak epe lluze eta ertain batera / azkenean eh: /  
63 deskalabrua baino ez tio ekarriko / orduan bai beharrezkoa da lehen esan dudana bezela  
64 ba plangintza bat egin dezatela / eta eta: bisio bat izan dezatela / herri honek zer izan  
65 nahi du hemendik hogeitahamar urtera euskera mailan / zer izan nahi du hemendik bost  
66 urtera / ba hasi gaitezen horretan lanean / badago badago kontsentsu bat gizartean // ez  
67 gara hutsetik abiatuta abiatzen / badago aurretik egindako lan bat / gertatzen dana da  
68 oraindik asko dagola egiteko / eta bueno: / badago ia milioi bat lagun euskeraz hitz  
69 egiten dugunok / euskeraz bizi nahi dugunok eta hori errespetatu beharra dagola eta hori  
70 aurrera atera beharra dagola / eta gizarte osoaren ardura dala hori aurrera ateratzea  
71 MI: zuk esan duzu maite maite etzaizula ajola eta entenditzen dizut ongi // esan nahi  
72 nuena da batzuk / alderdi batzuk badaudela gainera esaten dutenak maite dutela // eta  
73 iruditzen al zaizu maite dutenerako nahikoa eskeintzen diotela gizarte honi euskaraz

74 A: bueno behar bada hor ere / incluso maite duten maite dutela esaten duten hoietxen  
75 artean ere eskatuko nioke / eskera bere: / eh:: ba hauteskunde programaren kasu honetan  
76 / baina gero bere jardunaren zentroan ipini dezatela ezta / nik bai eskatzen dut  
77 euskararentzako zentralidade bat / eta gero eh zehar lerrotan / eh helburuetan  
78 nagusitasunean / hori zentroan ipintzea beste gai asko ipintzen dituzten bezela ez? / ba  
79 adibidez / gizarte zerbitzuak edo komunikabideak edo krisiaren aurkako neurriak edo /  
80 badaude beste gai asko eh:: / inork zalantzan ipintzen ez dituenaketa gizartean eta  
81 programa politikoan zentroan dagozenak / eta beharbada / eh bere burua euskeraren  
82 maitaletzak edo garbi daukaten alderdi horretxek ere ez dute nahikoa egin horren alde  
83 (3. zatia)

84 AO: kolektibotasuna aipatu duzu baina kolektiboa beti ere gizabanakook osatzen dugu  
85 eta hor jakina / bakoitzaren kontzientzia ezin bestekoa da ezta / kolektibo horiek sortze  
86 aldera ere / hau da / norberak apustu egitea euskararen alde bere eguneroko bizitzan

87 A: bai eh: / azkenean guk kolektibo hori herritarrok osatzen dugu eta herri herritarroi  
88 gertatzen dana batzutan herritar bakoitzarengan ipintzea karga hori oso gauza neketsua  
89 dala ezta / ze:: eh: /// lehen eskuzabaltasuna aipatzen genuen // eh: euskaldun batek  
90 egunero / ia leku gehienetan egon behar du pentsatzen hizkuntzaren hautua / eta egiten  
91 duen hizkuntza hautuaren arabera / berarekin jokatu dute modu batera ala bestera /  
92 orduan hor pisu guztia norbanakoen [gainean ipintzea

93 MI: oso estresantea da

94 A: oso estresantea da // eta hori da eh: / herri honetan / elebakarrek / erdaldun  
95 elebakarrek ulertzen ez duten zerbait / sekula ez dute pentsatu behar ze hizkuntzatan  
96 joango diran lehiatila batera / ikuskizun batera / denda batera / banku batera: / erabiltzen  
97 dute / bere hizkuntza [erabilita daukatena

98 AO: haien estresa] izan liteke: euskaldun batek oso nabarmen uztea ezta? / bereziki: eh::  
99 erakunde publikoetan / hau da euskeraz galde egin eta:: eh:: / esan behar izatea ez dakit  
100 euskaraz // eta pixka bat estutzea euskaldunak esanez ta nik euskaraz eh: atendituko  
101 nauen: eh: bateren bat nahi dut /// hori da beraien / estuasun unea esan dezagun ez  
102 nolabait

103 A: bai / estuasun unea eta [gero

104 AO: batzuk estuasuna pasatzen dute]

105 A: horrek ere erantzunkizun bat / ondorio batzuk izango balitu ba gaitzerdi ezta / baina::  
106 bueno / baina euskaldunok egunero: / ba ohituta gaude stres hori lor eh: // jasaten ezta  
107 / eztakit ohituta edo edo gogaituta

108 AO: behartuta

109 A: badaukagu behartuta eta badakigu [horrela dala  
110 MI: (( )) ]  
111 A: bai baina ia gero eta gutxiago dan ezta: / ze toki denda bat bakoitza / banku bakoitza  
112 / erakunde publiko bakoitza / ertzain bakoitza / komunikabide bakoitza / garraio publiko  
113 bakoitza / dana da estres bat / ta leku askotan nabarmen geratzea horrela da // ba: bueno  
114 hori da:: eh::  
115 AO: ez da apustu erraza  
116 A: ez da apustu erraza / eta ez daukagu zertan soportatu behar / ez daukagu zertan  
117 soportatu bear / hori danok bizi: / elkarrekin biziko bagara gizarte honetan nik eta nire  
118 ondokoak eskubide berberak eduki behar ditugu // gutxienez / bai  
119 MI: Elena Laka / eskerrik asko hona etortzeagatik zure hausnarketa gurekin  
120 partekatzeagatik etorri berriz ere nahi duzunean / badakizu azpimarran oso oso gustora  
121 egoten garela zu etortzen zarenean / eskerrik asko  
122 A: ba eskerrik asko neu be oso pozik / nahi duzuerarte  
123 MI: bai